



«Geroa Bai gabe,
ez da nafar
abertzaleon
ahotsik
izango UPNri
erantzuteko»

UXUE BARKOS

- **Fotis Katsikaris**, Bilbao Basket «Jokalari arrakastatsuenak ez dira beti talentu handikoenak, ongien integratutakoak baizik» • **Plastikoa** Zer egin mila urte irauten duten hondakinekin
- **Net Hurbil** Moneta alternatiboak bestelako ekonomia sustatzeko
- **Jasone Cenoz**, Hezkuntza Zientzietan katedraduna «Gure eskoletako hizkuntza sisteman potentzial handia galdu da» • **EIZI Eren mintegia** Idazleak eta itzultzaileak talde lanean

argia orain zure eskuko telefonoan ikusgai

Eskuko telefonoarekin eta QR kodeari esker, momentuan bistaratuko dituzu ARGIAko edukiak Interneten

Gustuko duzun artikulu hori lagun bati bidali nahi diozula?
Ezinegona sortu dizun erreportajeari buruz iritzia eman nahi duzula?
Elkarrizketa interesgarri horren bideoa ikusi nahi duzula?
Iragarki batean ikusi duzun produktua eskuratu nahi duzula?

Orain QR kodeak lagunduko dizu. Hona argibideak:



1

2

3

> Non lortu QR kode irakurlea?

Eskuko telefono bakoitzak bere irakurgailu berezia behar du. Hartu sakelekoa eta jaitsi ezazu zeurea! Irakurle ezberdin asko daude. Hemen ARGIAren gomendioak:

- iPhone-erako: Redlaser (www.redlaser.com)
- Blackberry-rako: Beetagg (www.beetagg.com)
- Android-erako: Barcode Scanner (www.market.android.com)

- 1 ARGIA astekariko artikulu bakoitzaren bukaeran QR kode bat aurkituko duzu.
- 2 Eskuko telefonoan jaitsi berri duzun kode irakurlera sartu eta argazki makina baten moduan, QR kodearen aurrean jar ezazu honek edukia irakurri arte. Adi, garrantzitsua da kodea enfokatuia erakustea.
- 3 Prest zaude zure mugikorrean ARGIAz gozatzeko!



Ausar zaitez QR kode hau irakurtzera eta argia.com berritua ezagutuko duzu!





Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



• NON ZER •

2011ko urriaren 16a, 2.294. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Mariano Ferrer:** «Egun inor ez da erredakzio kontseiluaz mintzo, administrazio kontseiluaz baizik». SUSTRAI COLINA / 5

Asteko gaia

- **Plastikoa.** Material kutunaren albo kalteak. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Fotis Katsikaris:** «Pertsonak ez gara jatorri bat, sentimendu bat baizik». SUSTRAI COLINA / 10

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 15
- **Ttakun (h)errenka** Ni neu aldatu. JOSÉ LUIS PADRÓN / 16
- **Kafe xorta.** BEA SALLABERRY / 17
- **Hiruko txikian** Talde terroristako. JOXEMARI OSTOLAZA / 17
- **Amaiur.** KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 18
- **Txandan** Esku biak bat. JOXERRA GARZIA / 18
- **Zirtak** Krisia labirintoan. JOSE INAZIO BASTERRETxea / 19
- **Bertso berriak** Kukutzari jarriak. MIREN AMURIZA / 20

Erdiko kaiera

- **Literatura.** Itzulpenaren zehaztasuna hurbil-hubiletik. IRATXE ESNAOLA / 21
- **Zinema.** Hil nazazu algaraka. MIKEL GARCIA / 24
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 25
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 29
- **Ihesi Lasarte-Oria (Gipuzkoa).** Zulo bat golf zelaian. HARKAITZ CANO / 30
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Uxue Barkos:** «Geroa Bairen helburuak NaBairen berberak dira». MIKEL ASURMENDI / 37
- **Jasone Cenoz, Hezkuntza Zientzietan katedraduna EHU:** «Hizkuntz ereduak ezarri zituztenean, nahiko baikorrak izan ziren». MIEL A. ELUSTONDO / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Ehunka txanpon txiki herriak biziberritzeko. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Egur email profesionalak. JOXE IRIARTE, BIKILA / 50



“Egun inor ez da erredakzio kontseiluaz mintzo, administrazio kontseiluaz baizik”

Mariano Ferrer | Buru-kazetaria

Jubilatua bai, erretiratu ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Kasualitatez, ez duzu jakingo noiz bukatuko den konfliktu baskoa, ezta?

Lizarrako prozesua behin-betikoa zela sinetsi nuen, Loiolakoarekin berdin, eta eskarmentatuta egoteak ez du esan nahi sinesteari utziko diodanik. Ezker abertzaleak berriz huts egiteko aukera duela uste duzu? Haluzinagarria irudituko litzaidake.

Bildu, sortu, eta jaioko dira berriak!

Puntu batera helduta, gauzak egiteko modu bakarra gauzak egitea da. Dena irabazi ezin duzunean, galdu beharrekoa lehenbailehen galtzea hobe. Ezker abertzaleak ezin du pentsatu bakea, iritzi publikoa, erakundeak eta *madre superiora* irabaziko dituenik.

Madre superiora ez da Iñaki Anasagasti izango, ezta? Badakizu, “tipo jasangaitz, sofista profesiona, eta datu manipulazilea” zarela dioen hori.

Ez dakit zer pasa zaion. Lehen, kongresuko diskurtsoak nire artikulatuak aipatuz bukatzen zituen. Auskalo, ez zidan barkatuko EAJren militantziak ezker abertzalekoaren gaitasuna izan balu, herri honek beste kupel bateko sagardoa edango lukeela esan izana.

Independentzia garesti ordaintzen dela, amigo!

Medioak, gizarteari injustizien aurrean bere burua defendatzeko tresnak eman beharrean, korporazio teknopolitikoekonomiko bihurtu dira. Nola defendatuko gaituzte sistemaren atzaparretatik sistemaren parte badira?

Tontotzat gauzkatela diozu?

Sistemaren funtzionamenduaren premiak asetzen dituzte eta bost axola zaie gainontze-koa. Kazetariak kazetaritzaren duintasunaren zentzua galdu du. Egun, inor ez da erredakzio kontseiluaz mintzo, administrazio kontseiluaz baizik.

Ez esan erredakzioaren administrazioetik administrazioaren erredakziora pasa garela...

Prekariatateak ofizioaren deskualifikazioa dakar. Soldata irabaziz gizartea zerbitzetik bere lana enpresa bati saltzen dion elementua izatera pasa da kazetaria. Horregatik dauzka gu sorpresarik gabeko kazetak, eta horregatik gertatzen dira gertatzen direnak.

Leteren “periodikua letuz ilustratzen gera” bukatu dela, alegia.

Adierazpenez jositako egunkariak dauzkagu. Gertaera bera baino garrantzitsuago bihurtu dira gertaeraren inguruko erreakzioak. Zergatik ez dira gertaerak ikertzen? Noiz ohartuko gara ia eguneroko titular nagusia politikari baten adierazpena dela?

Rosiren kioskoa itxi zutenetik...

Entzuleei ez diet sekula esan “halakoa da mundua, nik hala kontaktzen dizuedalako”. Alderantziz, eszeptikoak izan eta euren koa-droa marrazteko esaten nien. Buru-kazetaritza zen. Orain ordea, dena da presa, momentua, multimedia, eta gauza bera hama-zortzi modutan esatea. ■



Plastikoa

Material kutunaren albo kalteak

Propietate egokiei zein prezio merkeari esker, azken mendean plastikoak hartu du lehen beste material batzuek zuten lekua. XX. mende amaieratik hona ederto ikasi dugu, ordea, aurrerapen-usteen bidesaria dakartela ondotik. Plastikoa ere, beren abantaila eta guzti, ari da faktura ordainarazten. Sortzen dituen arazoei modu egokian aurre egiten asmatu beharko dugu, haren zabalkundeak ez baitu oraindik gailurra jo. Baina alternatibak badaude.

UNAI BREA

EZ DAGO JAKITERIK etorkizuneko historia liburuetan letra larriz idatzita agertuko den, Harriarena eta Burdinarena bezala; haatik, Plastiko Aroan bizi garela esateko arrazoirik ez da falta. 1909an lehenbiziko polimero guztiz sintetikoa egitea lortu zenetik, plastikoen ekoizpena ia modu esponenzialean hazi da. Argitu dezagun polimero guztiak ez direla

plastikoak, baina bai gehien produzitzen eta erabiltzen ditugunak. Hamarkadaz hamarkada, sortutako material berri haiek –bakoitza bere ezaugarri bereziekin, eta beraz, erabilera zehatzarekin– merkatuan sartu ziren arrakasta handiz, eta beste lehengai batzuen lekua hartuz joan ziren: zura, papera, beira, metalak... Eskala handiko ekoizpenak prezioa jais-



DANI BLANCO

INIGO AZKONA



tea eragin zuen, eta gero eta propietate hobeak zituzten plastikoak asmatu zituzten. “Azken urteotan plastikoen ekoizpena eta kontsumo ikaragarria izan da, eta horrek hondakin kantitate imajinaezinak eratzea ekarri du”, idatzi zuten Leire Perez eta Maite Artetxe EHuko irakasleek 2009an, *Plastikoek XXI. mendean dauzkaten erronkak* artikuluan.

Murrizketa txikia Europan, hazkunde etengabea munduan

Europan hasita gaude dagoeneko plastikoari muga batzuk jartzen –askoren ustez inondik inora ez nahikoak–, baina munduko beste leku batzuetan hazkundea geldiezina da. Asiako hego-ekialdean, batez ere; gaur egun, han erabiltzen da plastiko gehien. Beste merkatu batzuetara iristeko dago plastikoak, baina pentsatzekoa da hori ere gertatuko dela, Hego Amerikan batik bat. Fernando Mijangos EHuko irakasle eta kimikan doktoreak uste du plastikoaren ekoizpenak eta erabilerak gora egingo duela munduan, nahiz eta petrolio gutxiago egon. Gogoan hartu behar da petrolio fintzearen azpiproduktua dela plastikoak. “Erregaiak izango dira kaltetuak petrolio gutxitzeagatik, ez plastikoak; errazagoa izango da erregaiak



DANI BLANCO

BZBn egina duzue ezkerreko argazkia, hau da, Bizkaiko Zabor Berzikategian. Bertara iristen da hori koloreko edukiontzietan bildutakoa, eta bertan bereizten dira mota desberdineko plastiko-hondakinak. Ondoren, horietako batzuk –poltsa eta antzerako estalkietakoak– aldameneko BPB edo Bizkaiko Plastiko Berzikategira bidaltzen dituzte, eta han *pellet* txikiak ekoizten dituzte, industriak lehengai modura erabil ditzakeenak.

energia berriztagarriekin ordezkatzea plastikoak arbuizatzea baino”. Laburbilduz, luzerako izango ditugu plastikoak, eta baita haiek sortutako buruhausteak ere.

Iraupen luzea, bolumen handia

Zaborren arloan plastikoak ez da arazorik handiena, hondakinen kudeaketaz zerbait dakitenean esanetan, baina baditu zenbait berezitasun. Batetik, denbora luzea ematen dute degradatu gabe: 500-1.000 urtez egon daitezke naturan, desagertu aurretik. Bestetik, pisuari dagokionez hondakin guztien %10-15 besterik ez dira, baina bolumen handia betetzen dute. Zaborte-gian leku nahikorik ez eta, plastiko asko erre egiten da, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu ingurumenean eta, zenbait kasutan, gure osasunean. Petrolioaren beste edozein deribaturekin gertatzen den bezala, errekontzaren ondorioa karbono dioxidoaren emisioa da. Kloroa daukaten plastikoek, gainera, dioxina minbizi-eragileak jaurtitzen dituzte atmosferara. Eta kontuan hartu behar da plastikoak beste substantzia batzuekin nahasita egoten dela, sarritan. Hondakin bereizle

Plastikoek denbora luzea ematen dute degradatu gabe: 500-1.000 urtez egon daitezke naturan desagertu aurretik

amorratuena ere zail luke banatzea, edukiontzia horira joan aurretik, plastikoak eta hari erantsitako koloratzaileak, edo sua ez hartzeko gehitu dioten konposatua, edo...

Hori guztiori saihesteko bide bat birziklapena da, baina horretarako beste hondakinak baino oztopo gehiago jartzen dute plastikoek. Lehen Munduan behinik behin, zerbait

13.000 plastiko puska itsasoko kilometro koadro bakoitzean

Behar bezala biltzen ez den plastikoaren ondorioetako bat animaliengan eragiten duen hilkortasuna da. Arazoa bereziki larria da itsasoetan, urtero hainbat tona plastiko iristen baita bertara, lehorretik gehienbat (%80). Tentuz hartu beharreko datuak badi-ra ere, Nazio Batuen Ingurumen Programak, 2005ean, kalkulatu zuen batez beste 13.000 plastiko puska zebiltzala flotatzen ozeanoetako kilometro koadro bakoitzean.

Greenpeacek txosten mardula argitaratu zuen 2007an, plastikoek mundu osoko itsasoetan eragiten duten kutsaduraz. Ondorio nabarmenena faunari egiten zaion kaltea da, ondo dokumentatutako adibide askoren bitartez azaldu zutenez. Animalia askok plastikoa jaten dute, elikagaia delakoan edo nahi gabe irentsita, eta horrek osasun arazo handiak sortzen dizkie, non ez heriotza. Sarri, urdailean geratzen den plastiko zatiak asetasun sentsazio faltsua eragiten du; animaliak jateari uzten dio eta gosez hil daiteke. Baiteste, bestela, plastikoak digestio-

aparailua oztopatzea, baina ondorioa bera da. Ikerketek diote irentsita plastikoak sei hilabete eta bi urte bitarteko epea behar izaten duela gorputz barruan deskonposatzeko, Greenpeaceen esanetan.

Kontuan hartzekoa da, halaber, animalia hiltzen ez bada ere bere barruan dagoen plastikoa kate trofikora igarotzen dela. Esan beharrik ez dago espezie askoren kasuan geu garelako kate horren azken begia.

Beste heriotza kausa bat plastikohondakinekin trabatuta gelditzea da. Plastiko aleak animalia ito dezake, edo haren mugikortasuna mugatu, janaria bilatzea eragotziz.

Arestian esan bezala, lehorretik iristen da itsasoan dagoen plastiko gehiena. Iturri nagusiak kostaldeko turismoa, itsasertzetik hurbil dauden zaborteak —eurite handiak daudenean batez ere—, ur zikinen sarera botatzen ditugun hondakinak eta industriaren jarduna dira. Itsasoko zaborraren %20, berriz, ontzietatik nahita edo nahi gabe uretara botatakoa da.



“Zer lortzen da dortoka bat eta plastikozko poltsa bat elkartuz gero? Hildako dortoka bat”, dio afixa honek. (Argazkia: Ben Prendergast).

aurreratu da bilketa selektiboarekin, baina azkenean, birziklatzen den plastiko portzentajea txikia da ekoizten denarekin konparatzen badugu. Izan ere, elikagaiak aparte utzita plastikoa da gutxien biltzen eta birziklatzen den hondakin solidoa, Jose Ramon Sarasua EHUko ikertzailearen berbetan.

Lege uzkurak

Ekologistak Martxan elkartearen arabera, Espainiako Estatuan 51 milioi ontzi erabiltzen dira —material guztietakoak, ez plastikozkoak bakarrik—, eta horietatik %30 baizik ez da birziklatzen. Zehazki plastikoari dagokionez, honako datu hau ematen du elkarte ekologistak: birziklatutako plastikoa ekoiztitaokoaren %19,7 izan zela 2008an; espainiar legediak ezarritako gutxieneko %22,5a ez da erdietsi. Agian, legearen helburua laurdenera ere ez iristeak lagundu gaitzake, beste ezerk baino hobeto, arazoaren nondik norakoak ulertzen. Europako Hondakinen Zuzentarauak dio 2020rako lortu behar dela plastikoaren %50 birziklatzea, azaldu digu Joan Marc Simonek, GAIA eta Zero Waste (Zero Zabor) elkarteetako Europako koordinatzaileak. “Horrek adierazten digu norainoko borondate politikoa dagoen gai honekiko. Eta estatu batzuek epea luzatzea eskatu dute jada”.

Munduan, oro har, hain plastiko portzentaje eskasak birziklatzearen arrazoietako bat da benetako bilketa selektiboa, plastikoaren kasuan, ia inon ez dela egiten. Plastiko mota asko dago, zein bere konposizio kimiko eta propietateekin, eta birziklatu aurretik bakoitza besteetatik bereizi behar da. Egokiena kontsumitzaileak berak egitea litzateke, plastiko mota bakoitza edukiontzi batean utziz, baina munduko leku gutxitan dago aukera hori.

“Plastikohondakinak herriz herri biltzen dituztenek ez badute modu selektiboan egiten, birziklatu nahi duten enpresek eurek egin behar dute bereizketa, eta hori garesti ateratzen zaie, behin plastiko mota desberdinak nahastuta zailagoa delako bata bestetik bereiztea”, dio Joan Marc Simonek.

Tratamendurik zailena daukan hondakina da plastikoa. Ondo bereizita ez ezik, garbi egon behar da. “Hala ere, birziklatzea bera ez da hain garestia, bestela ez litzateke batere egingo. Horretan diharduten enpresek diote birziklatzea errentagarria dela beraientzat. Errentagarria ez dena da plastikoaren bila joan behar izatea, bereizi behar izatea, garbitu behar izatea...”. Plastikoa produktu merkea da, arestian aipatu dugunez. Botila berria egitea, esaterako, botila zaharra birziklatzea



INIGO AZKONA

Espainiako Retorna Fundazioaren *Itzuli Mitzuli* kanpaina Bilbon izan da irailaren 28tik urriaren 8ra arte. Europako hainbat herrialdetan indarrean dagoen sistema ezartzeko eskatzen dute: zenbait ontzi mota, behin erabili eta gero, dendara itzultzea. Hala eginda birziklapena %40 handituko litzatekeela diote. Espainian onartu berri den Hondakinen Lege berriak atea zabalik uzten du sistema hori aplikatzeko, orain arte ez bezala.

baino merkeagoa da, baina tartea murriztuz doa, petrolioaren garestitu ahala.

Errentagarritasun faltak ez du, beraz, hain plastiko gutxi birziklatzea esplikatzeko. Europan behintzat, beste faktore bat hartu behar da kontuan, Simonen iritziz: “Interesa dago plastikoa erretzeko, nahiz eta ez den biziki erregai ona. Hala, zati esanguratsu bat erretzen da, dela erraustegietan, dela zementu-fabrietan”. Birziklatzen ez den portzentaje horretatik, erraustegira ez doana zabortegetara joaten da, eta handik zati bat, itsasora, aurreko orrialdeko koadroan xehetasun handiagoz azaldu dugunez. Alferreko gas-tua, beti ere.

Zailtasunak zailtasun, plastikoak sortzen dituen ingurumen arazoei aurre egiteko ezinbestekoa da ahalik eta gehien birziklatzea; hala diote, ekologistek ez ezik, zientzialariek ere. Horretarako ahalik eta gehien bildu behar da, eta hor hasten da huts egiten Euskal Herrian indarrean dugun sistemak. Alegia, edukiontzi horiak, oso modu laburtuan esanda. Espainiako Retorna Fundazioak salatzen du sistema agortuta dagoela. “Berreskuratze portzentajea oso baxua da, %30-35 ingurukoa. Herrialde bakar batek ere ez du lortu %50a gainditzea”,

Euskal Herrian eta Europako herrialde gehienetan indarrean dagoen bilketa sistema agortuta dago, Espainiako Retorna Fundazioaren esanetan

diote beraien webgunean. Horren ordez, Europa iparraldeko eta ekialdeko hainbat herrialdetan indarrean dagoen eredu ezartzeko eskatzen dute: Gordailu eta Itzultze Sistema. Hots, ontzi bat erostean —plastikozkoa nahiz beste material batekoa—, erosleak diru kopuru txiki bat ordaindu behar du berme modura. Gero, ontzia itzultzen badu erositako

lekuan, diru hori itzuli egingo diote. “Sistema honekin, Alemanian ontzien %98,5 berreskuratzea lortu dute. Hori da birziklagarri dagoena”, diosku Joan Marc Simonek.

Bilketa sistema ezbaian

Aurtengo udan sartu zen indarrean Espainiako Hondakin Legea. Gordailu eta Itzultze Sistema erabiltzeko aukera aurreikusten du, oraingoz neurri zehatzik iragarri ez den arren. Horrek poztu egin ditu ekologistak, eta hein berean haserre arazi du Ecoembes, edukiontzien sistemaren kudeaketaz Espainian arduratzen den irabazi asmorik gabeko enpresa. Haien ustez, Gordailu eta Itzultze Sistemak kalte handia egingo lioke sektoreari, gastu eskerga egitera behartuko luke eta. Kontuan izan behar da gaurko eremuan Ecoembes osatzen duten enpresa

Europar Batasunak dirua emango die frantziar arrantzaleei Mediterraneoako plastikoa kentzeagatik

Mediterraneoak, bere ura berrizatzeko 80 edo 90 urte behar dituen itsaso itxiak, kutsadura arazo larria du. Eta kutsadura horren zatirik handiena, %80 Europar Batasunaren iturrien arabera, plastikoa da. Ingurumenaz arduratzen diren zenbait erakundek zabalduak datuek diotenez, 500 tona plastiko-hondakin daude itsasoan flotatzen, eta material beraren 250.000 milioi partikula txiki. Zabor horren %83ak lehorrean dauka jatorria.

Horri aurre egiteko, Europar Batzordeak proiektu pilotu bat abiarazi zuen Frantzian, aurtengo maiatzean: arrantzaleei ordaintzea arrainen ordeztatik plastikoa jaso dezaten. Hala batutako hondakinak birziklatzera bideratuko dituzte. Bide batez, diru-sarrera bat ziurtatuko zaie beren ohiko lana egiteko gero eta oztopo gehiago daukaten arrantzaleei.

EBko Arrantza Komisarioak, Maria Damanaki-k,

adierazi du itxaropena duela ekimen hau laster beste herrialde batzuetara hedatzeko. Beste herrialde batzuetako zenbait arrantzalek, berriz, gogorarazi nahi lukete beraiek aspalditik egiten dutela zabor-biltzaile lana ordainetan ezer jaso gabe, arrainarekin batera horixe bera baita portura ekartzen dutena, erruz: hondakinak.



CLAIRE QUESNEY

bakoitzak —plastiko eta bestelako ontzien ekoizleak, azken batean— diru kopuru bat jartzen duela, merkaturatzen duen produktu kantitatearen arabera. Ecoembesek, gero, diru hori erabiltzen du bilketa egiteaz arduratzen diren erakundeei (Udaletxe, Mankomunitate...) lan hori egiteagatik ordaintzeko. Gordailu eta Itzultze Sistemak, aldiz, enpresa ekoizlea behartzen du bilketa egitera.

Gehiago nahi luketen arren, espainiar ekologistek gustatu zaie gordailuaren aukera jasotzea legeak. Aitzitik, kritika zorrotza egin diete beste zenbait alderdiri. Plastikoa dago-kionez, erabilpen bakarreko poltsak dohainik banatzea ez debekatzea leporatu diote Madrilgo Gobernuari.

Galdutako aukeratzat jo du Ekologistak Martxanek zorioneko poltsekiko neurri zorrotzak hartu ez izana. Egia esatera, giroak ahalbidetuko zuen halako erabaki bat hartzea zalaparta handirik sortu gabe jendartearen, azken urteetan supermerkatu askok beren borondatez hartutako murrizketa-neurriek esker. Besterik da poltsa-ekoizleen erreakzioa. Joan Marc Simonen ahotik jakin ahal izan dugunez, “udan, EBko Ingurumen Komisarioak, Janez Potočnik-ek, esan zuen poltsa horiei buruz legediren bat beharko zela, baina plastikoen industriaren presioa dela-eta dena geldirik dago momentuz”. Erabilpen bakarreko poltsak gutxitzeko edozelango neurriak hartu diren herrialde guztietan, Euskal Herria barne, patronalak protesta egin du. Hein batean, datorkienagatik ere bai. Espainiako Hondakin Legeak

Ekologisten ustez, Madrilgo Gobernuak Hondakin Lege berrian erabilpen bakarreko poltsak ez debekatzea aukera paregabea galtzea izan da

ez ditu tupustean debekatu poltsak, baina bai ezarri du 2018rako desagertu beharko direla.

Plastiko biodegradagarriak

Kexu artean, Espainiako Plastikozko Poltsen Ekoizleen presidenteak denbora izan du adierazteko bestelako alternatibaren aldeko apustua egin beharko dutela. Zehatzago esateko, poltsa degradagarrien alde. Hain justu, polimero biodegradagarriak dira, birziklapenarekin batera, plastikoen arazoaren irtenbidearen beste ardatza. Halako materialak sortzen dihardu Jose Ramon Sarasuak zuzentzen duen lantaldea, Bilboko Ingeniaritza Eskolan.

Dioskunez, ez dira petrolotik eratorritakoak bezain erraz eta merke lortzen. “Badago merkatu bat horientzat, baina oraingoz ez da asmatu nola egin modu errentagarrian”. Bestalde, kontuan hartu behar da plastiko biodegradagarriek ezin dituztela, ageriko arrazoiengatik, plastiko guztiak ordezkatu, denbora laburrean erabiltzeko direnak besterik ez. Supermerkatutik etxerako bidean batez beste hamabi minutuko “lanaldia” egiten duen poltsa, esaterako, bete-betean sartzen da kategoria horretan, baina ordezkoko biodegradagarrien erabilpen portzentajea hutsaren hurrengoa da oraindik. Plastikoen Aroa luzerako izango dugunaren beste seinale bat. ■



Fotis Katsikaris

«Pertsonak ez gara jatorri bat, sentimendu bat baizik»

“Itsaso gaindi ikusten baduzu, gure gogoan daraman ontzia...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zer da entrenatzaile on bat?

Ezagutza, psikologia eta senaren arteko kok-tela. Jokoaren zirrikituak, estrategiaren aldaerak, taldearen gorabeherak eta inguruaren eraginak ezagutzeaz gain, entrenatzaile on batek ez dauka kontzeptu eta teknologia berriei adi egon beste erremediorik bere filosofiarik parametro aurrerakoiak txertatu nahi badizkio. Gurean, geldi egotea atzera egitea da. Jantzia izateaz gain, entrenatzaile onak psikologo ona izan behar du. Ezinbestekoa zaio bakoitzaren zein taldearen psikologia menperatzea, eta etengabe bilatu behar ditu erabakitako norabidean eragiteko moduak. Ezagutza eta psikologia dira ikasi litezkeenak, liburuetan idatzita datozenak, eta gero oso entrenatzaile onak zainetan dakarten talentu sena dago. *Feeling* berezi bat dute, uneoro delibero zehatz eta egokia hartzeko gaitasuna, ezustekorik harrigarriena aurreikusteko dohaina. Niri asko laguntzen dit nire jokalaria iraganak. Oso entrenatzaile onak izan ditut, beti izan dut begi bat geroan, eta beti saiatu naiz bakoitzaren hari-muturrak dantzatzeko manera analizatu eta gogoan hartzen. Horri esker, entrenatzaile lanetan hasi nintzenean, bapo zamatuta nekarren motxila.

Jendearentzat, uneoro erabaki garrantzitsuak hartzea da zama. Eliteko jokalaria batentzat aldez, bertute nagusia izan daiteke.

Erabaki onak hartzeko gaitasunak egiten du jokalaria bat on, oso on, bikain ala kaskar. Ez da gaitasun fisiko hutsa, altuera, jauziaren elastikotasuna edo tiro mekanika. Saskibaloia burua da, nortasuna. Ezertan hasi aurretik, jokalaria bakoitzak hamar hilabeteko exijentziari eta presioari aurre egin diezaiokeen neurtu behar duzu, bere bizimodu eta osasu-

na ororen gainetik zaintzeko gai izango den, bere eguneroko bizitzako arazotxoek bere errendimendua hondoratuko duten... Eguneroko pertsona hobeak izateko egin behar dugu lan, pertsona hobeak garen heinean onduko baikara jokalaria moduan. Beti esan dut nire eskemetan giltzarri bihurtzen diren jokalariai gai direla familia aurrera ateratzeko, erabakitzen badakitelako, erortzean zutitza egiten dutelako, ez dutelako beldurrik ikasteko eta edozein egoeretara moldatzeko. Horregatik diot saskibaloia baloia saskiratzea baino askoz gehiago dela.

Ez da erraza izango, ordea, izartxo betetako aldagela bat kudeatzea.

Zintzotasuna, zintzotasuna eta zintzotasuna. Ez dago besterik. Zintzotasunak taldeko izar arranditsuenarekin talka egitea eskatzen badi-zu, ezin zara kikildu, aurre egin behar diozu. Izarraren dirdirak itsutzen bazaitu, aldagelarekiko duzun sinesgarritasuna galduko duzu, zure indar guztia, eta hori da gerta dakizukeen okerrera. Jokalaria ez dira tontoak, ederki dakite bakoitza puzzlearen zer pieza

Nortasun agiria

1967ko maiatzaren 16an sortu zen Greziako Korydallos-en. 1986tik 1997ra saskibaloia jokalaria profesionala izan ostean ekin zion entrenatzaile ibilbideari, laguntzaile lehenik, eta bere kasa ondoren. Atenaseko AEK, San Petersburgoko Dinamo, Valentzia eta Aris Salonika entrenatuta heldu zen Bilbao Basket-era 2010ean, eta iazko ekainean taldea ligako finalera eramanez.



den, bakoitza zein eskailera mailan dagoen, eta ez bazara maila apalenean dagoenari egotzen diozuna gorenean dagoenari aurpegiatzeko gai, zureak egin du. Jokalariek entrenatzailea liderra izatea nahi dute, eta traiziotzat daukate aginte-makila duenak ez agintzea. Ardura horri zintzotasunez baizik ezin zaio erantzun. Txokera joatea beti da gogorra, ez parean izar bat duzulako, pertsona batekin txoke egitera zoazelako baizik. Horregatik, taldearekin argiki mugarrizten dugu joko-eremua, eta denok dakigu zein diren inolaz ere gainditu ezin diren marra gorriak. Egoismoak, nortasun gatazkatsuak edo izar baten gutiziak ez du ezer justifikatzen. Ezin da inor taldearen gainetik egon.

Nola osatzen da hainbeste nazionalitate, erlijio, hizkuntza, kultura eta ohitura desberdineko jendearekin multzo homogeneo bat?

Kolore desberdinekin koadro eder bat osatzea bezalakoa da. Koloreak konbinatzen asmatzean datza arrakasta. Entrenatzaileak asko du pintoretik. Taldea eraikitzen hasten zarenean koadroaren osotasuna izan behar duzu gogoan. Kontua ez da joko-antolatzaile, hegaleko edo pibot baten bila zabiltzan soilik, beste elementu batzuek erabakitzen dute fitxaketa. Jokalariari buruzko ikerketa sakona abiatzen dugu. Nondik datorren, zer saskibaloï eskolakoa den, bere familia egoera, daraman bizimodua, iragane-ko taldeetan arazoak izan dituen, zelako perfil psikologikoa duen... Direnak eta ez direnak aztertzen ditugu, niretzat askoz eraginkorragoa baita talentu gutxiagoko jokalaria konprometitua fitxatzea, talentu handiko bazternahastailea baino. Nortasun eramanerraza badu, lehiakortasun handikoa bada eta taldearentzat sakrifikatzeko prest badago, urrea atera zeniezaioke. Besteak, eliz dorreko beleak baino gehiago zorabiatuko zaitu.

Nola sortu nortasun propioa duen taldea, berau "munduko biztanlez" osatzen denean?

Pertsonak ez gara jatorri bat, sentimendu bat baizik. Bakoitzak dakarren kultura oinarri paregabea da mundura irekitzeko, eta ezin diozu uko egin zauden tokira egokitzeari. Ezin zara, zauden herrian zaudela, zure sorterrian bezala bizi. Hala bizi denak altxor anitz uzten ditu bidean, bai pertsona bezala, bai jokalaria legez ere. Jokalari arrakastatsuenak ez dira beti talentu handikoenak izaten, ongien integratutakoak baizik. Ez da gauza bera Bilboko, Malagako edo Moskuko jokalaria izatea. Gure baloreen artean dago klub

lagunkoia, familiarra eta inplikazio handia eskatzen duena izatea. Horrek nortasun handiko oso aldagela indartsua ukaitea ahalbidetzen digu, jokalarien arteko harremana itzela izatea, eta hori hala, arazoak askoz errazago konpondu ditzaket aldagela hil edo gatazkatsu batean baino. Garbi daukagu denok garelako arazo eta irtenbideen parte, ez daukagu egiak aurpegira esateko beldurrik, eta horrek ez dauka preziorik. Jakina ederra litzatekeela bertako jokalaria gehiago edukitzea, baina ezin gaitzke kexatu. Ekarri dugun jokalaria bakoitzari argi utzi diogu zein den gure mentalitatea, gure filosofia, gauzak egiteko modua, eta hiri honen harrotasun sentimendua uneoro arnastuarazi diogu. Hori pistara eramaten duzun momentutik irabazi duzu. Zaleak, bere baloreekin bat eginez, baloia berreskuratzen jokalaria bat lurrean bueltaka ikusten duenean berdin zaio Santutxukoa edo Chicagokoa den.

**"Entrenatzaileak aurpegira
begiratu behar die jokalariei,
baina beti ukan behar du begi bat
bizkarrean labankadarik sar ez
diezaioten"**

Zer da talde batek fitxatu eta hiri berri batera heltzean egiten duzuna?

Begi-belarriak ireki eta ahal bezainbat informazio prozesatzen ahalegintzen naiz. Ezin bestekoa iruditzen zait klubeko jendeak funtzionamendua, hiria, kultura, kodeak, bizimodua...

erakustea, eta behin bertakotzeko oinarritzko tramiteak konpondurik, harremanak ehuntzea gustatzen zait. Orain arte egon naizen hiriak lagunengandik egagutu ditut lehenik, eta bisita horiek asko esaten didate lagunengandik begiei buruz. Bitxia da, lagunari esker egagutzen duzu hiria, eta hiriari esker laguna. Herrialde askotan izan naiz, mentalitate desberdinekin egin dut topo, eta esango nuke nire baloreei uko egin gabe mentalitate horietan txertatzeko dudak gaitasuna dela nire bertute nagusietakoa. Berbarako, premiazkoa iruditzen zait hizkuntzaren traba ahal bezain fite gainditzea. Valentziarekin fitxatu eta hilabete pare batera prentsaurrekoak eta elkarrizketak gazteleraz ematen nituen. Nire akats eta larritasun guztiekin putzura salto egitea hobetsi nuen, jendearengana iristeko bide laburrena delako hizkuntza. Entrenatzaile orok lan egiten duen hirian gehien hitz egiten den hizkuntza menperatu behar luke. Hizkuntza ez jakiteak isolatu egiten zaitu, eta isolamenduak galbidea dakar gurea bezain mundu mediatikoan. Gainera, zer zentzu dauka lehen aldarrikatu dudak integrazioaren teoriak hizkuntzarik ez badakizu? Gure lana harremanean oinarritzen da, eta harremana ekonomia bezalakoa da, zenbat eta bitartekari gutxiago, hainbat hobe!

AZKEN HITZA

Produktuaren baloreak

“Ikuskizunean oinarritutako kirola da gurea, izugarri zukutu litekeen produktua. Zergatik uste duzu futbolak inportatu dituela jokaldi onenen sekzioa, MVP-aren figura edo estatistika zaparrada? Saskibaloia balore sozial, komertzial eta propagandistiko itzelak dauzka”.

Hizkuntza jakiteak izugarri lagunduko du ingurua eta prentsa kontrolatzen.

Hedabideak zure mezuak inguruari helarazteko kanalak baizik ez dira eta zuk erabakitzen duzu zer eta nola transmititu. Lan nekeza da, baina anitz zaindu beharrekoa, zure mezua- ren jabe ez zaren momentutik edozer gerta dakizukeelako. Baliteke espektatibek neurritz kanpo gora egitea, azeria oilategian sartzea, taldeari komeni ez zaion giroa sortzea... Inpaktu soziala edozein momentutan muntro bilakatu daitekeen piztia asegaitza da. Entrenatzaileak kantxan jokalariei transmititu behar dien gisan, kantxatik kanpo gizarteari sentimendu bat helarazi behar dio. Entrenatzailea taldeko bozeramailea da, barkuko kapitaina, eta ezin liteke erratu. Prentsak kale gorri bota zaitzake, baina ez zaio beldurrik izan behar, hori ez baita prentsaren errua, zuzendaritza ahul baten sintoma baizik. Une kritiko batean, prentsak zakurrak lepora askatuko dizkio zuzendaritzari. Zuzendaritza batzuek txakurrak askatzerako botako dute entrenatzailea, bestetuek borrokatu eta etsi egingo dute, eta zuzendaritza indartsuek zakurrei heldu eta laztantzen bukatuko dute. Garbi dago entrenatzailea botatzea dela errazena, baina zuzendaritzak ez luke inoiz ahan- tzi behar, prentsaren presioari men egin eta entrenatzailea behin botatzen duena luzaroan izango dela ahula, luzaroan ibiliko duela prentsak hankapean.

Aldagelak ere hartu dezake entrenatzailea hankapean?

Jakina. Entrenatzaileak aurpegira begiratu behar die jokalariei, baina badaezpada ere, beti ukan behar du begi bat bizkarrean laban- kadarik sar ez diezaioten. Alabaina, hori ere zuzendaritzaren indarraren arabera da. Entrenatzaile ororen kanporaketaren erraie- tan “nork agintzen du?” galderaren erantzuna dago. Klubak ez baldin badu entrenatzailea babesten, aldagelak sentitu egiten du, eta hor, hilda zaude, zure kaleratzea denbora kontua baizik ez da. Horixe gertatu zitzaidan niri

Valentzian. Zuzendaritzak ez zuen nik hartu- tako erabakien alde egin, desertu erdian bakar-bakarrik utzi ninduten, eta sumatzen hasita nengoen gisan, ostikoz jota bota nin- duten. Ez dago bueltarik. Hausturak minga- rriak izaten dira, baina natural-natural bizi behar dituzu. Azken finean, desadostasunak amildegia bezain sakonak badira, zertarako jarraitu?

Saskibaloia gizartearen ispilu den neurrian jo du krisiak?

NBAkoa gertatu beharreko zerbait zen. Estatu Batuetan, saskibaloia ez da kirol bat, ez da ikuskizun bat, sektore ekonomiko bat baizik. NBA enpresa bat da, eta ugazabek, ezeri baino lehenago, zenbakiei begiratzen diete. Urrezko aroan, jokalariek urrezko hitzarmenak negoziatu zituzten, segur aski merezi zituztenak baino dirutza eta eskubide handiagoak erdietsiz. Orain *soufflé*-a despuz- tu egin da, eta urrezko hitzarmen horiek berrikusi ezean lurrezkoa izango da oro. Nire ustez, alta, mehatxutzat baino aukera- tzat hartu behar litzateke krisia. Hauxe da proiektu sendoa eraiki eta geroan denontzat komenigarriak diren oinarriak finkatzeko unea. Hain garestia den produktua euria bezala jausten da goitik behera, eta iraunko- rra izan nahi duenak, behetik gora egin behar du lan. Agian, horrek salbatu gaitu European. Hemen ere krisiak ez du barkatu, baina aur- ten sekula baino liga indartsuagoa dugula esango nuke, taldeak inoiz baino gehiago indartu direla.

Krisi kontuez ari garela, nola bizi du greziar batek bere herriak bizi duena?

Izugarri gogorra da, mingarria, nekeza. Josi ezin den zauri zornatua. Krisi honekin galdu duguna ez da sinesgarritasun ekonomikoa soilik, urguilua baizik. Greziako jendea harro- tasun handiko jendea da, oztopo eta krisi guztien gainetik aurrera egiteko barne-indar eta kementa topatu duena. Oraingoan, ordea, jendea pot eginda sumatzen dut, etorkizunik ezin amestuta, tunelaren osteko argiaren bila abiatzeko grina gutxiarekin. Inork ez daki nola irtengo garen zulo beltz honetatik, baina denok dakigu gure seme-alaba eta biloben geroa hipotekatu dugula, eta zama horrekin bizitzea gaitza da oso. Krisiez mintzo gare- nean, beti aipatzen dugu aspektu ekonomi- koa, baina oraingoan are larriagoa da faktore psikologikoa. Abaildura animiko kolektibo hau lehenbizikoa da Greziaren historia modernoan, eta ez dakit nik ez ote dugun porrot ekono- mikoa baino garestiago ordain- duko. ■





SARI SARI SARI

Idazle den
aldetik
sartua,
Preso den
aldetik
punitua

Cervantes
ere preso
egon zen

ETA
Lauaxeta

ETA
ETXEPARE

ETA
Miguel
Hernández

Molière

ETA Oihenarte
Amenduze...

IPARRAGIRRE

IZTUETA

Lauax



TTAKUN (H)ERRENKA

Ni neu aldatu

Joxerra Garziak *Ego-
nean doazen geziak*
(Alberdania, 2000)
ezohiko liburua kale-
ratu zuen. Genero eta
estilo nahasketatik abiatuta,
funtsean aforismoen itxura
hartzen duen bilduma da libu-
ruea. Interesgarria, oso ona.
Egileak, arloetako batean,
Goebbelsen honako esaldi eza-
gun hau hartzen du bere gogo-
eta egiteko: “Gezur bat, edo-
zein delarik ere, egia bihurtzen da behar
adina aldiz errepikatuz gero”. Eta esaldiari
buruzko hausnarketa egiten du, esanez,
Goebbelsek arrazoi zuela egiaztatzeke ez
dagoela oso urrutira joan beharrik. Baina
okerrena, ez dela hori. Okerrena da egia ere
gezur bihurtzen dela, behar baino gehiagotan
errepikatuz gero. Nik gezurra beti dela eta
izango dela gezur, eta egia beti dela eta izan-
go dela egia sinestu izan dut, baina okerra
litzateke nork bereak dituela zaintzen uka-
tzea. Guztiok gara gure gezur eta egien mai-
tale. Norberak bere esperientzia bakoitza sor-
tzen du, gezurra eta egia pentsatzeko eta
sentitzeko duen moduaren arabera. Pentsa-
tzen, sentitzen eta hitzetan jartzen ditugun
gezurak eta egiak osatzen dituzte, azken
finean, munduari eta bizitzari buruz ditugun
usteak. Nik beti sinestu nuen egia gezurra
baino askoz ere boteretsuago, jakintsuago,
justuago zela, baina “teorema” horrek nire-
ztat baino ez du balio. Bizitza
osoa egin dut egia baten bila, eta
saiatu naiz harremanen bidez,
politikaren bidez, erlijioaren
bidez, maitasunaren bidez,
diruaren bidez, kulturaren
bidez, baina orain iritsi naiz
ulertzera alferrik ibili naizela
bila. Eta ez da izan aurkitu ez
dudalako, baizik eta aurkitu
dudan bakoitzean, atea ireki eta
inor ez, eta ezer ez zegoelako
han. Lehenago jakin izan banu
orain dakidan gutxi hori, baina,
tamalez, ez dago ikasteko beste

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

modurik. Ezjakintasunak
sustrai sakonak ditu giza-
kiongan, horregatik gerta-
tzen zaigu hain zaila benetan
jakitea. Eta ez dut esango
hori gauza txarra edo ona,
gauza zuzena edo okerra
denik, giza bizitzaz dakigun
egia zaharrenetako bat da,
besterik gabe. Baina hau une
berri bat da niretzat, eta

berriro hasi naiteke une honetan bertan, ira-
ganetik libre. Gaur sinestu, pentsatu eta senti-
tu nahi dudan horrek eraikiko du nire biha-
rra, nire datorren hilabetea, datorren urtea,
eta abar, eta abar. Eta hau une berri bat dela,
berriro hasteko aukera berri bat dela ulertzea
zoragarri iruditzen zait. Baina hori horrela
egin nahi baldin badut, arau hertsia bihurtu
ditudan nire gezur eta egia txikietan aldaketa
handi batzuk egiteko prest egon behar dut.
Nik ezin baitut inor aldatzera behartu, egin
dezakedan bakarra ni neu aldatzea baita.
Gauzak okerreko alderdiz ikustera jartzen
ninduten egiak aldatu. Nire buruaz liluratuta
bizitzera eramaten ninduten gezurak aldatu.
Ni neu aldatzen naizen heinean, aldatuko bai-
tira nire mundu guztia eta nire bizitza guztia.
Hertsitasunak sustrai sakonak ditu gizakion-
gan, horregatik egiten zaigu hain zaila ideia
berriak eta bizitzeko modu berriak experi-
mentatzea. Askok dira hasteko egin ditzakedan
gauzen artean egin ditzakedanak, baina hona-
ko honekin hasiko naiz: prest nago gatazka
politikoaren ondorioz piztu
zaizkidan ezkortasuna, nekea,
gabeziak, mugak edota experien-
tzia desatseginak elikatzen dituz-
ten jarraibide negatiboak uzteko.
Hor ikusten dut nik askatasu-
nako bidea. Urteak dira kontra-
koa egin dudala guztiz, eta ez
naiz aldatu. Ez da bidea. Zorio-
na, berezkotasuna, ahalmen sor-
tzailea berreskuratu
nahi ditut. Hemen
eta orain. Askatasu-
na. Nire herriak
bezala. ■

Prest nago gatazka politikoaren ondorioz
piztu zaizkidan ezkortasuna, nekea,
gabeziak, mugak edota esperientzia
desatseginak elikatzen dituzten jarraibide
negatiboak uzteko. Hor ikusten dut
nik askatasunerako bidea



Bea Sallaberry

IRAKASLEA

Kafe xorta

Goizaldean, karriken labirintoan bakoitza urrats zaluz doala, han-
hemenka “auzokoek” agurrak zuzentzen dizkiote elkarri. Non-
bait, baten “Kafe bat?” gonbitari
besteak ihardesten dio “bon, are, baina
fite!”. Usaiako ateraldia, sinoz landua, hipo-
krisia zenbaitekin, presa eta ardura franko-
ren artetik kontzesio zenbait baili-
tzan. Minutu ahurtara bat baizik ez
da izaten, gehienik oren laurdena.
Kafe bat: kikera elegante xuri
batean bildu likido irakin beltzaun
urreztatua, giroak jantzia. Hori bai-
zik ez, eta aldi berean hainbeste.

Hasteko, baliteke zer erran eho-
tzekoaren karrankaz, edalontzien
klaskaz, irratiairen oihartzunaz, ixur-
tzen doan xirripa eztiatz eta edaria
zerbitzatu arteko eternitatea apain-
tzen duten argi tapatuez. Gero, kafea,
edan gabe, preziatzen da, zeremonial
guztia lagun: hunkitzen da, usaintzen, beha-
tzen eta poliki ahoratzen. Ezpain eta mihi
puntak erre ondoan, zapore guztiak ahotan
zapartatzen direla, gozatzen da lehenik, aldi
berean garratz eta suabea, zintzurrean behera
emeki helarazi aitzin, barne osoaz jabetzera.
Lehen hurrupa izaten da hoberena; egunean
zehar, nahi bezainbestetan edanik ere, bakar
batek ez baitu gustu bera izanen.



JAKES LARRE

« Lehen hurrupa izaten da hoberena;
egunean zehar, nahi bezainbestetan
edanik ere, bakar batek ez baitu
gustu bera izanen »

Eguneko lehen kafe hori izaten da ezagun
eta lagunekin edana, etxetik lanerako
bidean, bulegoetatik bi jauzitara, haien bai-
tan murgildu beharko gaituzten beharretara
joatea arrastatuz bezala hartua. Preziaga-
rriak izaten dira gisa berean, tarte labur
horretako solasak: bezperako gertakariak,
bati omen agituaren inguruko kutzukeriak,
mugimendu eta erakundeetako jen-
deen arranguren berriak, haurrak
gaizki iragan gauaren aipamena,
barra izkinean egunkariaren azalak
begi-bistan utzi eskandalua. Eleak
trukutzen dira, gogotik eta zintzoki,
goizeko izpiritu oraino fresko eta
kutsatu gabeek ondurik.

Nekez nezake trenka, kafeak ala
solasek, zeinek duen bestea berezia-
go bihurtzen. Berdin dio. Guztiak
du leku eta uneari betetasuna dio
ematen: goizeroko erritua da, betiko-
tasunean aldioro ezberdin. Ortzemu-
ga zabaleko gure bizi hipersozializatu-
ei beha-
tuz, ezdeusak iduritzen ahal dituzte momentu
hauek. Bizkitartean, arima saltzeko heinekoa
gerta daiteke, noiztenka zinez berant hetsia
ere. Minutu ahurtara bat, kafe
xorta bat, eleketan: ene buruari
eskaini nahi diodan parentesia,
zaporez eta ausaz betea: “Are,
ados, fite-fite orduan el”. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



militantea izateagatik kondenat-
tu zuten idazlea. Komisaldegian
epelak hartu ondoren kartzela
eltzeetara eraman zuten egosi
zedin. Bere egoskorrean literatura sortze-
ko ahaleginetan jarraitu zuen eta eguberri amaraunetan
babestuta begiratu zion ilargiari urrunekoez elkartze-
ko. Labainean doan eguzkiaz libratzen zen heriotzatik,
bizitzari kantuz ekinez. Ez zuten erretzea lortu eta ez
zen izoztu, eltzetik eltzera, frigorifikotik frigorifikora
onik aireratu zen euskal letretara euskaldunontzat oto-
runtza freskoak paratuz. Orain, bi hamarkada eta erdi-
tik gorako denbora joan eta, bere saiakera bati Gasteiz-

Talde terroristako

ko Gobernuak sari bat eman dio, denborak
ez duela berez justizia erakartzen frogatuz.
Bere lana saritu dute, ez bera, terrorista ezin
liteke literatoa izan. Areago ez bada damu-
tzen, eta Joseba Sarrionandiak ez du damurik erakutsi.
Ez omen du deseginda ikusi nahi zuen Estatuarekiko
zorritu kitatu, eta hemengo kofradeek frakezko kobra-
tzaileena egin dute, zegokion hemezortzi mila eurokoa
patrikaratuz. Hedabide espainoletatik
bereziki izan da txalotua erabakia, erre-
tzaile porrokatu ohien erretzaileen aur-
kakako tamainako herra erakutsiz. Bakea
eta sos. ■



Karlos Gorriñdo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA

Amaiur

Lau hankako mahaia egiteko, arotz eta ebanista iaioak behar izan ditugureak. Ezinbestekoa izan da zoritxarrez, bestalde, txirlora eta ezpallak bazterrean geratzea, hanka sendo eta leunak lortzekotan. Amaiurren baitan eratutako asmoa indar metaketarena da, eta hau ezinbestekoa da ezer lortuko bada. Eta lortu nahi duguna ez da huskeria: Euskal Herri subiranoa eta euskalduna, besteak beste. Baina horretarako indar abertzale hegemonikoa izan behar dugu. Esan nahi baita, hegemonia ez dela soilik boto kopuru ikaragarria lortuz irabazten den zer baita, baizik eta politika egiteko era, etika eta moral eraberritua zabaldu behar dela politikarien artean. Ezarritako sistema aldatzeko gai ez izanagatik ere, ikus dadila politika egiteko modu desberdina eta sistema birmoldatzeko gai garela. Ulertuko ez litzatekeena, bestalde, hauxe da: sistemak irenstea eta gure asmoak hutsaren hurrengo uztea, jakin ez dugulako zirrikitu egokiak bilatzen gure helburuak lortzeko.



INIGO AZKONA

«
Ulertuko ez litzatekeena hauxe
da: sistemak irenstea eta gure
asmoak hutsaren hurrengo
uztea, jakin ez dugulako
zirrikitu egokiak bilatzen
gure helburuak lortzeko
»

niako hauteskundeetan parte-hartzea. Auto-determinazio eskubidea Espainiako Konstituzioan txertatzea Konstituzioaren kontrakoa da. Hortaz, eta, batik bat, ikusirik Espainiak ez digula gurea dena zertan eman, zer egiten dugu Madrilera begira, beste behin ere Euskal Herria Espainia dela espainiarrek erabiliko duten argudio historikoa berresteko ez bada? Atal ekonomikoari

dagokionarengatik baino ez nuke ulertuko gureak ez diren hauteskundeetan parte-hartzea. Diputatuak edo senatarriak izateak ematen duenarengatik, hain zuzen ere. Gure joko zelaia Euskal Herria da eta bertoko instituzioak: Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Parlamentua, aldundiak eta udaletxeak, eta iparraldeko instituzioak. Erakunde hauek erabili behar ditugu gure aldarrikapenak egiteko. Institutuzio hauetan gehiengoa izanda baino ezingo diogulako Estatuari aurre egin, gure joko zelaian guk jarritako joko arauak ezarrita. Indarrak batu egin behar dira horretarako eta, jakina, ETak ez du

lekurik ibilbide honetan (Gernikako Akordioaren lehen puntua). Demokrazia parte-hartzaile benetakoa erabili ahal izango dugu, instituzionala, erakutsiz badela modurik guk nahi dugun Euskal Herria eraikitzen hasteko. ■



TXANDAN

Joxerra Garzia



Ezkerra eta eskuina bereizgaitzak begitantzen zitzaizkidan duela pare bat urte arte; ez akaso axaleko ezau-garrietan (ukitu eta estilo zeretan), baina bai funtsezko kontuei (giza eta gizarte eredu eta balioei) dagokienez.

Handik hona, berriz, bereizgaitz zirenak bereizezin bihurtu ditu ipar-mendebalde aberatsa aztoratuta daukan (gauzkan) krisiak.

Esku biek bat egite hori logikoa ez ezik zentzuzkoa ere izan zitekeen, egoeraren larria kontuan hartuta (larritasuna, hala ere, erlatiboa da beti, nora

Esku biak bat

begiratzen eta zerekin alderatzen den).

Bat egin, eskuinean egin dute bat esku biek, ezkerrean bat egiteko aukerari muzin eginik, antza, krisiaren lehen

sintomak agertu zirenean, diru eta gainerako putetxeen aurka esan zirenak gorabehera.

Berdin dio gobernua noren esku dagoen, eskuinaren dotrina ezartzen dute denek, *ezinbestean* (bestetik ezin delakoan edo). Hori bai: ezkertiar ustekoek *nabitaex* hartu beharreko neurriak jakinaraztean malko zuria isurtzen dituzte ezker-eskuin, eskuin esker onez. ■



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Krisia labirintoan

Bazen behin labirinto bat Kreta urrunean, bere baitan *Minotauro* delako piztia bat gordetzen zuena atxilo. Labirinto hark ez zion ateratzen uzten bertara jausitako gajoari. Kale zehar, bidegurutze anitz, eta segada eta tranpaz betea... haratutako denak nahasten, erotzen eta galtzen zituen bere barrualde konplexuan.

Zazpi neskatala eta zazpi mutil gordetzen zituen eraikuntzak: erdi gizon eta erdi zezen hark eduki zezan bazka garbia. Munduaren lau bazterretatik ekarriak ziren gazte horiek; labirintoa munduaren bazter horietara guztietara hedatuko zen aieru eta bihozkada gisa.

KRETATIK MUNDURA. Dedalo arkitektoari eskatu zitzaion kartzela hura diseinatu eta eraikitzea; Minos erregeak eman zion enkargua. Errege labirinto zaleak honako hauek zituen guraso: Zeus –jainko olinpikoen buruzagia– eta Europa –Tiroko lore-biltzaile ederra.

Itxia eta mendekoa nahi izan zuen Minos krudelak kartzela. Aldaezina eta ziklikoa ezarri zuen bertako bizitza: bueltaka eta bueltaka ibili behar zuen presoak han, atzeraurrera, ezinezko ametsetan galdurik.

Mendeen joan-etorriak bultzatuta, Kreta inguruko herriek eta nazioek Europa izena berenganatu zuten: Tiroko lore-biltzaile hura gogoan hartuta. Eta, eder haren itzalpean, Minotauro delako piztia itsusiaren atzaparretara erori ziren Mediterraneoak bainatzen zituen lurralde denak.

Ez ziren jada hamalau lagun labirintoan harrapatutakoak, ezpada ze askoz gehiago, konta ezin beste. Auzo eta herri osoak, nazio zabalak –pobreak nahiz aberatsak–, den-denak erori ziren labirintoaren zurrunbiloaren baitara. Eta beraiekin batera, baita herritarrek ere: gazte nahiz zahar.

Bizitza berri baten esperoan berenganatu zuten denek Europa deitutako ametsa. Eta,



INIGO AZKONA

konturatu gabe, lo gaiztoa baizik ez zuten oheratu.

MUNDUTIK INFERNURA. Itxura berriak hartu, eta aldatu egin zuen *Minotauro* hark izena, honako hau bereganaturik: *Kapitalismo*. Eta, izenak izen, beti bezain basati jardun izan du, ez Mediterraneoan bakarrik, mundu osoan baizik.

Labirinto zahar hartako segadek ere hartu dituzte beren bataioko ur berriak, orain deitzen dira: banketxe, mailegu, iruzur fiskal, kaleratze umilgarri... eta denen kapitain egiten du *espekulazio* deitutako batek.

Mitologia zaharrak kontatzen duenez, *Minotauro* odoltsu hura hil zuen Teseo izeneko gazte batek: labirintora jauzi egin eta mendean hartu zuen hark zezena. Aterabiderik ez zeukan kartzela hartatik irteten asmatzeko, hari bat eraman zuen Teseok gerrian lotuta, Ariadna panpoxak bezperan ehundu eta zirrikitu batetik eusten ziona.

Alderdi horretan, ez da errepikatu historia; baina bestelakoetan, bai. Labirinto zahar hura goitik behera suntsitu zen; baina berriak hor dirau, eta kapitain berria garbitu duenik ez da jaio, ez zeruan ezta lurrian ere. Hedatzen doa labirinto modernoa; gero eta piztia basati gehiago ari da bertara biltzen: lanik eza, soldatarik eza, pentsiorik eza... familia bereko zilarrezko otsoak denak.

Kreta zaharreko garaietan bezala, alde-rrai ibiltzera dago derrigorturik herritarra: mailegu-jasotzaile herratua da orain, lan-biltzaile noragabea, elkartasunaren eskeko nahasia, eta administrazioen bufoi irragria.

Egungo banku gosetiekin, burtsako espekulatazailleekin, gobernu alienatuekin... zer egingo ote zuen Teseo askatzaille hark? ■



Labirinto zahar hartako segadek ere hartu dituzte beren bataioko ur berriak, orain deitzen dira: banketxe, mailegu, iruzur fiskal, kaleratze umilgarri... eta denen kapitain egiten du *espekulazio* deitutako batek



irudia:
Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Kukutzari jarriak



XDZ

I

Gazte batzuk asanbladan
haur bat begira dagola,
oholtzan baxu jole bat,
horman mila banderola,
kamisetak, argazkiak,
pinturak, Euskal Tonbola,
asteartez txalaparta,
ostegunez bertso-eskola...
Sorkuntzarako gune bat
oroitu dezagun nola
epaile baten aginduz
eraitsi zuten behinola. (bis)

III

Hiru txerrien ipuina
gorroto nuen umetan,
baina sarritan izan dut
gogoan aste hauetan.
Lastozko etxetxo baten
edo gaztetxean bertan;
otso bat arnasa hartzen,
epaile bat gogoetan...
Batak sinatu egin zuen,
besteak putz, adurretan,
baina basakeria bat
ez al da kasu bietan? (bis)

V

Telebistan ezer ez da
kalean bezain gordina,
nahi dena ezkutatzeko
botatzen dute gortina.
Azkunak sofatik zeukan
ikuspegi ezberdina,
eta arrazoitu zuen
ertzainen borroka grina.
Egur hots hura ikusita
nork esango luke baina,
bilbotarrak babestea
denik bere zeregina! (bis)

II

Bilbo zaharraren Kukutza,
Kukutza Errekaldeko,
mehatxupean zeukaten
eta babes emateko
giza-harresi bat sortu zen
eskuz-esku, metroz-metro:
musikari, bertsolari
nahiz auzotar peto-peto.
Baina gaur egun dena da
zeharo neurrigabeko;
eraikinak husten dira
poltsikoak betetzeko. (bis)

IV

Asteak igaro arren
ez dugu erraz ahantziko,
ertzainen bortizkeria
manifestariekiko:
pailazoak odoletan,
auzotarrak belauniko,
pelotazo eta porra,
ukabil eta ostiko...
Txakurrak bezala hozka
jarraitu ordez betiko,
egunen baten hizketan
ez al dute ikasiko? (bis)

VI

Gaztetxe baten sorrera
ez da dibertsio hutsa,
beti dago zer egina,
beti dago zeri bultza,
baina herri gazte baten
esperantza da sorkuntza.
Nahiz eta orain Errekalden
soilik geratu errautsa,
denok batera egiten
badugu putz Bilboruntza,
garretik sua bezala
berpiztuko da Kukutza. (bis)



DOINUA: Gure herri ttiki hau da.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaisia

Literatura

Itzulpenaren zehaztasuna hurbil-hurbiletik

Zortzigarren urtez EIZIEk *Idazlea* itzultzaileen lantegian mintegia antolatu du Irailaren 27tik 29ra Gasteizko Europa Jauregian. Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurreagaren *Aitarekin bidaian* antzerki obraren pasarte bat itzultzen jardun dira itzultzaileak. Bertan izan gara eta talde lanaren abantailez jabetuta itzuli.

IRATXE ESNAOLA

Argazkiak: Dani Blanco

MAHAI BATEN BUELTAN eserita daude Arantxa Iturbe kazetari eta idazlea, Itziar Otegi lantegiko koordinatzaile eta itzultzailea, Julia Marin antzerki itzulpengintzan aditua eta *Aitarekin bidaian* antzerkiaren pasarte ingelesera, polonierara, alemanera eta katalanera

itzultzen diharduten Diana Draper, Monika Czerny, David Lindemann eta Ainara Munt itzultzaileak, hurrenez hurren. EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) euskaratik beste hizkuntzetarako literatur itzulpengintza indartu eta zabaltzeko

EIZIEren eskutik itzultzaileen lantokian sartu zen irail amaieran Arantxa Iturbe idazlea, Agurtzane Intxaurrearekin eskribitu duen *Aitarekin bidaian* antzezlanaren itzulpenean parte hartzeko.





asmoz antolatzen du mintegi hau 2004. urte-
tik. Lehenengo edizioetan prosa landu bazu-
ten ere, eta Euskadi Saria jasotako autoreak
hautatu, irizpideak aldatu dituzte gerora.
Karlos Linazasororen mikroipuinei ekin zie-
ten orain bi urte eta poesiari iaz, Itxaro Bor-
daren poema hautatuekin. Aurten, lehen
aldiz, antzerki generoari heldu diote. Itziar
Otegi eman digu obraren hautapenaren zer-
gati: “Gaia unibertsala zela
iruditu zitzaigun eta bagene-
kien sariak jaso zela eta gai-
nera euskaraz sortua”. Hain
zuzen, 2011ko Max antzerki
saria jaso du berriki Euskal
Autorearen sailan.

Antzerkia itzultzeak beste
generoek ez duten berezitasu-
na du. Ahozko erregistroaren
ezaugarriak nabarmenagoak
dira, Julia Marinek gogoratzen digun moduan.
“Genero hau esateko da eta belarriz jasotzeko.
Idaztean ahozko hizkuntzatik hurbilago ibili
behar da”. Antzerkirako pertsonaiak karakteri-
zatzea oso garrantzitsua den neurrian, ahozko-
tasunari lotutako esamoldeekin borrokan ikusi
ditugu sarri itzultzaileak. Nola itzuli “Kriston
gogoa daukat!”, edo “Bai, horratio!” edo

**“Autoreei gehien kostatzen zaiena
beren testua horren sakon
galdekatua izan dela sentitzea da.
Itzultzaileak egin duen irakurketa izan
daitekeen sakonenetakoa da”**

ITZIAR OTEGI, MINGEAREN KOORDINATZAILEA

“Rubia!” bezalako espresioak. Azken honen
itzulpenean David Lindemannek kolorea man-
tendu nahi izan du, baina Alemanian ilehori
askotxo badenez, norbaiti hala deitzea arrunte-
gia litzateke. Beraz, gorriarekin bitxiago eta
exotikoago ematen duela erabakita, hitz elkar-
keta bitartez burutu du itzulpena, buru eta
gorri hitzak batuz. Ainara Muntek, aldiz, nahi-
ko argi dauka: *Rossa*. Ilehori esan nahi du kata-
lanez, fonetikoki primeran funtzionatzen du,
eta gainera, kolorea eta sexu ukitua mantentzen
ditu. Polonieraz Monika Czernyk momentuz
“panpina” hautatu du eta noiz edo noiz “nire
panpina” eta “panpinatza”. Nahiz eta kolorea
galdu itzulpenean, aurrerago agertzen den dan-
tza eszena baterako egoki omen dator. Pentsa-
kor geratu da, nolana. Moldatu daitekeen
sentipenarekin. Diana Draper bi hitz ingelese-
kin geratu da, konpentsazioaren ideiak asko
laguntzen baitu, mahai inguruan behin baino
gehiagotan aipatu denez. Batetik, “*Goldy*”. Esa-
nahiari bi zertzelada ematen dizkio, urrezko
kolorea eta dirdira handia. Bestetik, ukitu
sexuala gal ez dezan, “*Gorgeous*” tartekatu du,
noizbehinka. Oraingoz irtenbidea ontzat eman
arren, itzulpen lana erabat amaitzen ez den jar-
duna dela aitortu du. Ikusten denez, bada zer
eztabaidatu, zer zuzendu, nahiz itzultzaileek
pasarteak etxetik landuta ekarri.

Bien bitartean, Arantxa Iturbek galderei
erantzun eta argipenak ematen ditu. “Hemen
badirudi autopsia batean gaudela!”, esan du
irribarrez. Itzultzailearen bilaketa zehaztasu-
narena da. Dena galdetzen dio bere buruari,
detailearik txikiena ere bai. Tipografia akats
batek ere ekar dezake zalantza. Psikoanalisi
urratzen da beste batzuetan, sakoneko esa-
nahiaren bila, pertsonaiaren nolakotasunaren
atzetik. Ahaleginak ahalegin, ordea, beti ez da
lortzen baliokidetasun perfektua. Diana Dra-
perrek batzuetan galerak ekidin ezinak direla

aitortzen du. “Zaharrak, gau-
zak dira” dio testuak une
batean. Gaztelaniara “*Viejos,
son los trapos*” itzuli zuten.
Esaldi honek, esate baterako,
oihartzun etxetiarak ditu
Draperren ustez eta erreso-
nantzia ezagunak euskaldu-
nentzat. Tamalez, ingelesera
pasatzean galdu egiten da
hori. Ez du etsitzen, hala ere,

eta efektuaren bila jarraitzen du. David Lin-
demannek alemanez baliokide bat aurkitu
dio. Ez du literalki itzuli, baina giroa manten-
tzen du eta askotan hori da egokiena. Lana
eta barreak tartekatuz aurrera doa goiza.
Eztabaidagaiak ez dira amaitzen. Irainen gaia,
esate batera. Batzuentzat gordina eta gogorra
dena, besteentzat ez da. Subjektiboak dira

irainak, etxe bakoitzean ezberdinak. Alua ala kabroia, bietan zein da mingarriago?

Idazlea itzultzaileen aurrean

Arantxa Iturbek berak itzuli zuen euskarazko jatorrizko testua gaztelanira. Auto itzulpenaren eta lantegiko esperientzien gainera galdetuta, zera erantzun du: “Bi esperientziak oso ezberdinak izan dira. Itzultzeko orduan zailtasunak izan genituen, baina ez hemen azaltzen ari zaizkigun mailakoak [barrez]. Askatasun handiz egin nuen lan gurea zen zerbait itzultzen ari nintzelako, neurea eta Agurtzane Intxaurrearena. Uste dut aurrerantzean, eta hemendik iragan ostean, irribarre bat baino gehiago sorraraziko didala nire burua galdezka aurkitzeak: hau zergatik jarri ote dut horrela eta ez bestera?”. Itziar Otegi azpimarratu du Iturbek aipatua idazle gehienei pasatzen zaien zerbait dela. “Auto-reei gehien kostatzen zaiena beren testua horren sakon galdeketa izan dela sentitzea da. Itzultzaileak egin duen irakurketa izan daitekeen sakonenetakoa da. Baldin ziurtasuna izango bada ondo itzulia izan dela, dena ulertzen saiatu behar da, baita intentzioa ere. Idazle guztiak harritzen dira testua zenbateraino auzitan jarri dugun ikusita”. Halaxe dirudi, Arantxaren baieztapenari erreparatuta. “Harridura sortzen dit itzultzaileen profesionaltasunak eta euren leialtasunak, guk itzultzaile bihurtzean betetzen ez duguna”.

Talde lanean, hobe

Aurtengo edizioako itzultzaileek lehenengo aldia dute lantegian eta esperientzia positibotzat jo dute. Denek azpimarratu dute talde lanaren onura. Ainara Muntentzat besteen ahotsak entzutea eta idazlearekin hitz egitea oso lagungarri izan da. Besteen pentsamendu prozesuak ahots goran entzutea izan da aberasgarri Diana Draperrentzat. Monika



Lau hizkuntzataraz itzuli dute Iturbek eta Intxaurrearen testua. Senex aldizkariaren zenbaki berezi batean publikatuko da mintegian egindako lana.

idatzia jasotzen da, baina obra liburuan egoteaz aparte muntatua egon daiteke eta beste erreferentzia batzuk ditu ordukoak. Itzultzaileak jakin behar du testua abiapuntua bakarrik dela, ondoren talde lanean jardun beharko baitu”. Obra zuzendariaren ikuspuntura hurbiltzea da itzultzailearen eginbeharra, baita aktoreenera ere. Espazioa, obraren estetika eta giroa barneratu behar ditu idatzia. “Itzultzaileak pieza bihurtzen da. Itzultzailearen zeregina hitza mimatzea da eta neurritik doakion traje bat egitea. Sortzen ari den unibertso horretan egoki sartuko diren hitzak aurkitzea” gogorarazi digu Juliak.

Urtero bezala, lantegian burututako itzulpenak Senex aldizkariaren zenbaki berezi batean argitaratuko dituzte aurrean ere. Testuak munduko Euskal Etxeetan, Cervantes eta pareko erakundeetan zabaltzen saiatzen dira, eta atzerrian itzulpenari zer harrera egiten zaien jakiten zaila bada ere, hemen nabari da ilusioa lantegia beste urtebetez mantentzeko. Adiorik ez, hortaz, itzulpen literarioei. “*Przyszłym roku! Bis nächstes Jahr! Fins l'any que ve! See you next year!*”. Edo gurea ekarritak: hurrengo urte arte! ■



Zinema

Hil nazazu algaraka

“Zure baimenarekin, etxera noa, bihotzekoa izatera”, dio John Travoltak *Pulp Fiction* komedia beltzean. Sarkasmo iluna maite duen generoak ibilbide oparoa egin du pantaila handian eta azken emaitza etxean bertan dugu: Telmo Esnalek zuzendutako *Urte berri on, amona!*

MIKEL GARCIA

KATAKLISMO NUKLEAR baten atarian, goi-mai-lako agintariak bildu egin dira, nola jokatu erabakitzeko. Gutxienez 100 urtez lurrazpiko pasabideetan bizitzea eta ugaltzeko gizon bakoitzak hamar emakume gazte izatea proposatuko du *Strangelove* dokto-reak, eta aretoko gainerako gizonez-koei ideia ona irudituko zaie. Adibi-de zaharragoak aurki baditzakegu ere, Stanley Kubrickek zuzenduta-ko eta Peter Sellers komikoak antzezturiko *Dr. Strangelove or: How I Learned to Stop Worrying and Love the Bomb* filma (1964) hartzen da komedia beltzaren aurrekaritzat.

Ezbeharrei eta bereziki heriotzari lotuta ageri da ia beti generoa. Kutsu britainiarraren adibide, Monty Python lotsagabeen eszena sol-teak (*The Holy Grail*, *Life of Brian*), Guy Ritchie-ren *Snatch* edota *remake* estatubatuarra eragin zuen *Death at a funeral* filma, hiletan okerreko hildakoa, maitale nanoa eta drogak nahasten dituen. *Delicatessen* frantsesak haragi-gose diren bizilagunen istorioa ekarri zigun eta *C'est arrivé près de chez vous* belgikarrak, *serial-killer*-ei buruzko pelikulen parodia zinikoa. Baina asiar zineman bilatu ohi ditugu proposamen harri-garrienak, manga eta bideojoko estiloan bortiz-keria, odola, terrorea eta umorea korapilatzen dituen *Battle Royale* japoniarra kasu. Sotilago eta ironikoago, tortura gelan erlaxatzea gustuko duen *The Addams Family*: Gomez, Morticia eta gainerakoak Charles Addams komikigileak sortu zituen *The New Yorker* egunkarirako.

Hainbat zuzendarik bere egin du komedia beltza, estilo pertsonalarekin. Tim Burtonek irribarrea sorrarazten daki giro goibel, hits eta makurren (Sweeney Todd, Sleepy Hollow, Beetlejuice); Coen anaiek barrea bilatzen dute satira soil eta gordinarekin (Fargo, A serious man, No country for Old Men), Quentin Tarantinoren dia-logo eszentrikoak irudi biolentoen kontrapun-to bitxia dira (Pulp Fiction, Reservoir Dogs, Inglor-ious Basterds); eta Alex de la Iglesia bilbotarraren pertsonaiak zikoitzak baina sele-break izan ohi dira (El día de la bestia, La comuni-

dad, Perdita Durango). Muga politikoki zuzenak hausten abilenak, dena den, South Park telesai-leko protagonista mihigaiztoak ditugu –galdetu bestela kapituluoro modu ankerreenetan hil-tzen den Kenny gizajoari–.

Txotxetik urte berrira, gazi-gozo

Gurean, Telmo Esnal eta Asier Altuna tandem aipatu behar ditu-gu ezinbestean. Oso okela berezia saltzen zuen sagardotegia irudikatu ziguten Txotx film laburrean, klonazioarekin jolastu zuten 40 ezetx lanean eta Aupa Etxebeste! arrakastatsua-oren ostean, hastapenetako mundu ilun hartara bueltatu nahi izan dutela kontatu digu Esna-lek. Oraingoan, urrats bat harago doa biek ida-tzitako eta Esnalek bakarka zuzendutako Urte berri on, amona!, aurreko lanak baino basatiagoa, apurtzaileagoa, barregarriagoa. Mafia, thriller eta tragedia ukituekin atondua, artez uztarturi-ko genero saltsa prestatu du zuzendari zarauz-tarrak, bihurtunez betetako istorio dinamikoa, aktoreek bikain antzezturiko barrabaskeria serioa. Amona gogaikarriak familian eragiten dituen buruhaustea dira filmaren ardatza, eta “gidoia idazterakoan pentsatzen genuen, ‘pasatzen ari ote gara?’, baina gero egunkaria irakurri eta ezetz konturatzen ginen”, dio Telmo Esnalek Urte berri on, amona! filmaz (irudian, Josean Bengoetxea aktorea pelikulako eszena batean).


“Gidoia idazterakoan pentsatzen genuen, ‘pasatzen ari ote gara?’, baina gero egunkaria irakurri eta ezetz konturatzen ginen, errealtateak fik-zioa gainditzen duela. Areago, sinesteko zaila-go den pasadizoren bat, izarak moztearena esaterako, errealtateetik hartua da”, azaldu du Esnalek. Nola definitzen du bere umorea? “Gazi-gozoa, barre egiten ari zarelako... baina zertaz? Gibelean gai serioak jorratzen dira: emakumeak gizartean duen rola, senarraren jokaera, biolentzia... Umorea, drama, suspen-tsea nahasten ditut, baina ez metodikoki, intui-tiboki baizik, horrelakoa naiz nire bizitzan ere, umore beltza egiten dut nahigabe”. Hitchcock, Ferreri, Berlanga, Coen anaiek, Lumet... ditu erreferentzia, baina zigilu pertso-nala jartzen die bere lanei, barrutik ateratzen zaiona egiten du, eta barru-barrutik umore beltz zor-ro-tza ateratzen zaio Telmo Esnali. ■



“Gidoia idazterakoan pentsatzen genuen, ‘pasatzen ari ote gara?’, baina gero egunkaria irakurri eta ezetz konturatzen ginen”, dio Telmo Esnalek Urte berri on, amona! filmaz (irudian, Josean Bengoetxea aktorea pelikulako eszena batean).



ANA ZAMBRANO



	B		R	O	I	L	M	M
J	A	S	O	M	E	N	U	G
P	O	B	R	E	A	I	Z	K
Z	P	R	I	O	N	E	K	O
	A	N				B	I	R
C	I	I					Z	O
D	O	A				M	I	R
N	I	U					O	I
M	O	L	K	E	E		K	A
Z	N	A	K	U	L	E	R	I
H	A	I	D	O	R	K	A	T
H	I	K	A	N	A	H	I	K

Liburuak

KRITIKA

Neu naiz azkarrena.

Testua eta irudiak: Mario Ramos.
Itzulpena: Aztiri itzulpen zerbitzuak.
Tarttalo. 48 orrialde. 12,50 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Otsoa amona

MARIO RAMOS album egile ezagunak Txanogorritxoren istorio-tik abiatuta ipuin berria kontatu digu. Abiapuntua ipuin klasi-koaren antzekoa izanik, irakurleak berehala ikusiko du Ramo-sek bestelako istorioa kontatu nahi digula; izan ere berehala ikusiko dugu otsoa Txanogorritxori ohartarazten arriskutsua izan daitekeela “basoan bakarrik ibiltzea (...) Basapiztiaren bat aurki dezakezu, marrazo bat, adibidez! Marrazoak demonioa baino gaiztoagoak dira gero!”.

Baina Grimm anaien edo Perraulten hipotestu hura presente izanik, otsoak neskatoa engainatu eta bai bera bai amona jateko prestatzen da: “Neu naiz azkarrena! Otordu ederra egingo dut gaur. Hasteko, amona labea, eta azkenburukorako, marrubi goxoa”. Eta otsoa, neskatoa basoan distraitzen delarik, amona-ren etxera iritsiko da berehala baina han amonaren orde z honen atorra aurkituko du. Gertakari sinple horrek, eta otsoari amonaz moztortzea bururatzeak, istorioaren nondik norakoa erabat aldatuko dute.

Ramosek aurretik ditugun aurreiritziekin jolasten du. Uste-kabea ehiztariarekin egingo du topo otsoak... Hartz Txikiren familia ere hurbil izango du, hiru txerriak otsoaz mintzatuko zaizkio, zazpi ipotxak ere pasatzen ikusiko ditu, baita Montre-sorko Markesa ere, Loti Ederraren jauregiak galdezka. Guztiguztiekin, baina, amonatzat hartu dute eta otsoa haserre bizian amonaren atorra kendu nahi eta ezin. Eta une horretan, amorratzen dagoelarik, hara non agertzen zaion Txanogorritxo. “Eskerrak! Honek behintzat ezagutuko haur!” dio otsoak listua dariola neskatoaren gainean salto egiteko prest.

Baina, hasieratik liburuari darion umore kutsu horrekin bat eginez, amaiera ez da otsoaren gogokoa izango, eta irakurleak, oraingoan ere, irribarrez amaituko du liburua.


Kontakizun sinplea, eta ikusi ahal izan den bezala, ipuin eza-gunen erreferentziak beterik ageri zaigu album hau. Irudi oso esanguratsuak, indar handikoak eta ederki lotzen direnak tes-tuarekin, bien arteko informazioa osatuz (eta, ipuinaren erditik aurrera, ehiztariaren betaurrekoen kontura jolas eginez).

Azken finean, *Neu naiz azkarrena* liburu hau literatura tradi-zionalarekin literatura modernoa nola egin daite-keen erakusten duen adibide argia eta ederra dugu. Haur txikiak kontatzeko liburua, haur txi-kiak irakurtzeko eta baita helduon gozamenera-ko lana ere. ■



Urgain herriaren urperatzea

Joan Mari Irigoienek Nafarroako alegiazko herri batean kokatu du publikatu duen azken eleberriko istorioa: *Ur arreak, ur gar-biak* da Altzako idazlearen lehen nobela *Orbetarrak* trilogia titanikoaren ostean. Urgain herria urpean datza orain, desarro-llismoak eta diru-goseak urtegi bihurtu bai-tute lehen herri bizi izandakoa. Herri



Ur arreak, ur garbiak.
Joan Mari Irigoien.
Elkar.
300 orrialde.
21 euro.

horren erretratua egin du Irigoienek, mendi, ibai eta eliza, baina batez ere hezur-haragizko herrita-rrak protagonista bihur-tuz. Eguneroko bizimo-dua eta politikaren borroka uztartzen dira kontakizu-nean, oroimenen forman. Memoria, lehorte garaian urpetik etxeak nola, halaxe ateratzen baita azalera. ■

Bizi-erritmoen azelerazioa

Abiadurari, presari, gure gaur egungo bizi-moduari buruzko gogoeta da Aitor Zuberogoi-tiak *Surf* saiakeran jaso duena. Bilbo-ko Udalak eman ohi duen Miguel de Unamuno saiakera sariaren XI. edizioan irabazle izan zen Alberdaniak argitara eman duen lana. Bitakora kaiera baten eran idatzia, bizi-erritmoen azelerazioak egune-roko bizitzan zelan eragiten digun deskri-batu gura izan du Etxebarriako kazetariak. Hari horretatik tiraka eta esperientzia per-sonalak oinarri, garapen teknologikoaz eta globalizazioaz ikuspuntu interesgarriak eskaini ditu Zuberogoi-tiak. Gauzen garrantzia eta presa erlatibiza-tzen lagunduko dio ira-kurleari. ■



Surf.
Aitor Zuberogoi-tia.
Alberdania.
148 orrialde.
17 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Latinoamerika eta Jamaikako ardo gorri onenak



Puro Infierno.
Vendetta.
Baga-Biga.
Iraupena: 43'05".
11 euro.

Vendetta Skalariak eta beste taldeetan ibilitako musikari trebatuek osatu zuten eta azken urteotan non-nahi ari dira emanaldi arrakastatsuak eskaintzen; inork ezin ditu gelditu. Bada ska eta rocka ondo nahastuta arrakasta lortutako zenbait talde, baina iruindarrek gehiago probatu nahi dute, eta bigarren lan honetan koordinadak aldatu dituzte. Kanta askoren oinarria ska, dantza eta tronpetak eta tronboiak piztutako patxanga geldiezin eta kutsakorra den

arren –Bad Manners eta raggamuffia ere ezin ahaztu–, Latinoamerikara gero eta gehiago begiratzen diote (rantxerak, balada latinoak, Kubako malenkonia, Mano Negra...). Ez hori bakarrik, barruan daramaten alderdi punk eta rockeroa ere behin baino gehiagotan azaleratzen dira. Mobida tronpeteroak ez zaituela betetzen? Hitz egin aurretik, jarri arreta...

www.myspace.com/vendettanafarroa

Pello Reparaz - Vendetta

«Baikortasun eta ostia txar fusioa da gurea»

Zer dauka ska musikak non-nahi hain entzuleria fidela eta konexio ona lortzeko?

Baikortasun mezua barruan dakarren estiloa da. Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan horrenbeste jotzeak bistan uzten du jendeak mezu horren egarria duela. Irribarre, baikortasun eta ostia txar fusioa da gurea, eta hori transmititzeko ska, rock, punk, latin, reggae eta bihotzak eskatzen digun estilo oro erabiliko dugu.



Musika latinoak eta jamaikarra dira iturri nagusienak?

Serioago jarri nahi badugu eragin punkienak azaleratzen ditugu baina dantzarako Latinoamerikara jotzen dugu. Gorputza mugitzean irriak, besarkadak, ukabilak eta ideiak mugitzen dira. Ez dugu Vendetta mugimendurik gabe ulertzen.

Ska-tik at, badira hit bihur daitezkeen *A muerte*, *Begitara begira* pop-

reggaea eta Manak idatzi nahi izango lukeen *Buonasera*, adibidez.

Begitara Begira eta *Buonasera* bezalako abestiak gure ohiko ardatzetik ateratzen diren abestiak dira, eta benetan berezi ari dira bilakatzen guretzat eta zaleentzat.

“Ez dakart abestirik, ezta poema handirik, bakarrik nire bihotza taupada gogorrean”. Sentimenak dira funtsezkoena?

Planteatu diot neure buruari jen-

deak zer entzun nahi duen. Ikertu ere egin dut. Baina abesti bat idazterakoan, ezin izango dut inoiz jendeak entzun nahi duena oinarritzat hartu. Argi dakartzagu mezuak, sentimenak eta ideiak.

***La Diabla*, *La Familia*, *A muerte*, zuen estetika bera... Mexiko oso presente dago.**

Doinuek, oihuek eta iraultzek batzen gaituzte. Ezin dugu tendentzia hori ukatu eta hemen duzue

Puro Infierno. Hemendik hara, iraultza multikultural eta internazionalista.

***Pasos de acero*. Borrokatu beharra?**

Ostia txarrez idatzi nuen kanta hori eta beste garai batzuetan egin nuen arren, gaur egun idatzia ere izan zitekeen –Errekaldeko genozidio kulturala kasu–. Suaren aurrean, sua. Aupa Kukutza! ■



Ezpalak

JON TORNER

1936ko gerra pairatu zuten emakumeak omenduko ditu 'Amantalen ahotsa' ikuskizunak



AHOTSAK.COM webguneak bildutako testigantzak ditu abiapuntu *Amantalen ahotsa* ikuskizunak. 1936ko gerra eta gerra ostea

bizi izan zuten emakumeek kontatutakoak ditu ardatz musika, bertsoak, dantza eta antzerkia uztartuko dituen obra horrek. Besteak beste, Amaia Zubiria abeslariak, Oinkari dantza taldeak, Maialen Lujanbio bertsolariak eta Ainere Tolosa eta Sara Cozar aktoreek parte hartuko dute ikuskizunean. Pasa den astean estreinatu zuten Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

• Benito Lertxundi musikaria luze elkarrizketatu dute Noticias taldeko egunkariak: «Gure kultura,



BIDASOATIK BIDASOAN.

hizkuntza, salbatzeko, politika da bide bakarra. Zer egiten dute estatu independenteek? Beren kultura inposatu. Euskara dirua eta lanpostuekin lotu, eta ikusiko duzu nola salbatuko den. Elebitasunaz zentzurik gabe hitz egiten da askotan. Herri honek ez dago elebitasunik, ezinezkoa da 24

orduz euskaraz bizitzea. (...) Nik ez dut zerikusirik ingeles, aleman, frantziar edo espagnol kontzeptuekin. Hauekiko harreman sano bat da falta zaiguna, baina horretarako askatasunarekiko errespetua beharrezkoa da. Ni euskalduna naiz eta munduko beste edozein herrialderen mailan nahi dut Euskal Herria, inorekin eskutik helduta joan gabe. (...) Askotan galdetzen didate, 'non zaude zu?'. Ni hortxe nago. Ez nago sigla, alderdi edota balore jakin batzuen menpean, nerekin ez dezatela horretarako kontatu. Ni, norbaitekin joatekotan, herriarekin noa. Herriaren beharra dagoela ikusteko gaitasuna agertzen bada, hantxe aurkituko naute ni, hori baita nere habitat naturala».

Jose Luis Zumeta

(Usurbil, 1939) eta Carmelo Ortiz de Elgea (Aretxabaleta, 1944) pintoreen tamaina handiko 46 koadro izango dira ikusgai Gasteizko Artium museoan 2012ko martxora arte. Denbora horretan, bi artistek margolan bana sortuko dute euren tailerretan, eta prozesua webcam biren bitartez jarraitu ahal izango da, bai Artiumen bertan –irudiak horma batean proiektatuko dituzte–, baita museoaren webgunean (www.artium.org) ere.



TXOMIN TXUEKA

Dejabu antzerki konpainiak *Gure bide galduak* obra estreinatu zuen pasa den asteburuan Donostiako Lugaritz kultur etxean. Franco hil ondorengo lehen urteetan kokatua, baserri girotik –Zubietatik– hirira –Errenteriarra– Magisteritza ikasketak egitera doan neska baten gogoetak ditu ardatz antzezlan berriak. Miren Alkala, Iñigo Aranbarri, Maria Alonso, Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga dira aktoreak; eta Arantxa Vicedo musikariak ere parte hartzen du.



Edurne Elizondo (Bera, 1972) kazetariak *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* liburua plazaratu du Txalaparta eta Gatzuzain argitaletxeekin. 1990eko hamarkadan milaka euskal gaztek egin zion uko armadara joateari, belaunaldia markatuko zuen intsumisio mugimendu anitzari hasiera emanaz. Belaunaldi gazteenei mugimendu haren berri ematea, borroka hura irabaztearen garrantzia azpi-

marratzea eta antimilitarismoak duen gaurkotasuna plazaratzea dira Elizondoren helburu nagusiak.

Pablo Giorgelli argentinarraren *Las acacias* filmak irabazi du Latinoamerikako kultura eta zinemari eskainitako Miarritzeko jaialdiko sari nagusia. Giorgelliren lehen film luzeak kamiolari bakarti baten barne gatazkak azaleratzen ditu. Alejandro Landesek *Porfirio* izan da jaialdiko beste garailea, epaimahaiaren sari berezia eta aktore onenaren saria (Porfirio Ramirez) lortuta.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Hemen literaturak ez du ezer inporta

DIARREA BEZALA zabaldu dira iritziak hango eta hemengo prentsan Joseba Sarrionandiari *Moroak gara behelaino artean?* saiakerarengatik Euskadi Saria eman diotela jakinarazi ostean. Batere gogorik ez akusazio, seinalatze eta jazartze horiek komentatzeko, Alberto Moyano kazetariak joan den astean bere blogean zioen moduan, *Sesame Street*eko ikusleek ere behar ez dituzten azalpenetan sartzea baita: “Idazle batek egin-dako delituek ez dute bere obra hobea edo okerragoa egiten”.

Eta zer esan Eusko Jaurlaritzak bidalitako oharra-*ren excusatio non petitaz*: leitzen duzu sarrerako esaldia-*ren* isatsa (“... ez du idazlearen literatur balioa zalant-*zan* jarri nahi”) eta bi gauza gutxienez pentsatzen dituzu. Bat: nahi-nahi, ez duela ezer zalantzan jarri nahiko, baina esaldi hori idazte hutsarekin zalantzan jartzen duela dena. Eta bi: literatur balioa testuek izan beharko luketela, ez idazleek, ezta?

Azken hori iruditzen zait auzi honen iltzea, oker-bihurrika sartua eta herdoiltzen hasia: literaturan obrek geroz eta gutxiago inporta dutela, egileek jan dutela terreno guztia. Iratxe Retolazak azaldu zuen kontu hau oso argi *Berrian* argitaratu zutabe batean: “Literatur testuaren irakurketa baino-*ago*, presentzia literarioak dira nagusi, eta presentzia literario horien hartzaileak dira nagusi, eta ez literatur testuen hartzaileak. Esaterako, literaturaren inguruko eztabaidarik gehientsue-*nak* idazleen elkarrizketen, idazleek idatziriko iri-*tzi*-zutabeen eta idazleen jarrearen ingurukoak dira, eta ez literatur testuen ingurukoak. Hedabideetan (izan paperezkoetan, in-*an* digitaletan) presentzia literario horiek hedatzen dira (idazleen irudiak, idaz-

leen adierazpenak, idazleen posizioak...), eta ez literatur testuen inguruko irakurketak edo gogoetak”.

Sarrionandiaren presentzia da Espainiako iritzi-*giroa* aztoratu duena, ez bere liburu, ez aurretik ida-*tzi* duen beste edozein liburu. Seguruena –Ander Itu-*rriotzek* ETB1eko *Azpimarra* saioan seinalatu zuen moduan–, ETArekin amaiera gertu dagoela dirudien honetan, PP-PSOE ententea “garaile-galtzaile” narra-*tiba* eraikitze borroka betean dabilelako eta puzzle horretan enkajatzeko ez duen piezetako bat Sarrionan-*dia* bera delako (“Hiltzaileek” hil egiten dute, ez libu-*ruak* idatzi! Liburu onak? Are gutxiago! etc. etc.).

Edonola, onartu beharko da partidua kontrako angelutik jarraitzen ari garenok ere antzera jardun dugula: edo gezurretan ari al naiz esaten badut Sarri-*onandiaren* mitoa guk ere puztu dugula, testuak biga-*rren*, hirugarren, laugarren planoan utziz? Zenbaterik sentitzen dute eurentar ezer ere irakurri ez dioten

arren? Hor dago problema: literaturak ez duela ezer inporta gehienetan. Hemen literaturak huts-hutsean ez duela balio, ezta liburuak saltzeko ere.

PS: Pozten naiz sariagatik, bide batez: aspalditik zor zion Euzkadik errekonozimendua Sarrionandiari. Pena etorri denean halako zalaparta esku-*tik* ekartzea.



ARGAZKIA: JOSU LANDA



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.




BIZKAIA
BIZIA

Ihesi

HARKAITZ CANO

Argazkiak: Dani Blanco



Euskal Herria ezagutuz:
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Zulo bat golf zelaian

70etan Lasarte-Orian jaiotzeak –guretzat Lasarte zen oraindik, huts-hutsean– bazuen otsailaren 29an jaiotzearekin parekotasunik. Egun horretan mundura sortutakoei hurrengo urtean otsailak 28 egun baino ez edukitzeak ematen dien ziurgabetasun berbera sentitzen genuen lasartearrok, izan ala ez izan, halako nortasun intermitentea, udaletxe propio finkatuaren gabezia medio.

1986RA ARTE ez zitzaion aitortu Lasarte-Oriari udalerri izaera, duela 25 urte, beraz. Andoain, Hernani eta Urnietaren artean partitzen ziren ordura arte bere auzoak. Puzzle zatikatu bilakatzen zuen partiketa

horrek paraje ederrez inguratutako herri zatarra, eta puzzle intermitente horren izaera herritarroi zitzaigun, beharbada, kutsatzen. XXI. mendeko modu epatantean esateko, “nortasun likidoa” geneukan.

Ez baita Lasarte leku polita, aitor dezagun. Baina polita behar al du lekuak haurrak bere Jolasaren Erresuma eraiki dezan? Ezta bate-re. Ederretan eder ziren parajez inguratuta geunden, gainera: zer





esaten didazue Buenos Aires auzoz? Hilerrira igo eta Santa Barbarako haitzetan eskalatzeko esku-eskura dugun hori? Erdigunetik ihes egitera gonbidatu eta bere zirkulu zentrokideak urrunera heltzen diren lekua da herri hau. Litekeena da Lasarte zulo bat izatea, baina golf zelai baten erdian dagoen zuloa da, edozein kasutan. Aspaldi batean izan zuen golf zelai haren gomuta, beharbada.

Adidas eta Puma markako larruzko esku-zorro deportiboak, hainbat urte beranduago retro modak berriro ere boladan jarriko zituen berberak, zeramatzaten eskuetan. Denak ziren gizonezkoak. Diagonalean, pauso luzez zeharkatzen zuten Michelineko langileek Juan XXIII enparantza, lanera bidean, fianbrerak eskuan (tupperik ez). Michelinek blaitzen zuen herria, Michelinek ematen zien lana lagun askoren gurasoei. Michelinek ping-pong talde txapelduna zeukan, judo eskolak, futbol zelai ederra, teniserako pistak, frontoia. Michelinekoak ziren gure jostailu inprobisatueta

markatik fuerakoak (tira... Michelin markakoak!).

Oria ibaiaren ondoan dago Juan XXIII enparantza, gure jolaslekua, gure antzezlekua, existitzen ez ziren kirolak asmatu eta saskibaloira patinetan ibiltzekoa. Hura da, Juan XXIII enparantza, Challenger espaziontzia zeruan leheritu zenean izarretarantz begiratu genuen lekua. Juan XXIII plaza zaharrean ez zegoen ezer: bankuak eta zementua baino ez. Egun, haurrentzako jolas-parketxoak ezarri dute, kolorez eta zabuz betea. Txukunago dago orain, zer esanik ez. Baina aurki orok du bere ifrentzua: orain zaila litzateke beisbole-

Michelinek blaitzen zuen herria, Michelinek ematen zien lana lagun askoren gurasoei; Michelinekoak ziren gure jostailu inprobisatueta

ra jokatzeara, Zumaburuko enparantza egin ohi zenez. Capuletoak vs. Montescoak. Sharks vs. Jets. Auzo bakoitzak bai baitzuen bere harrotasuna.

Hipodromorantz

Oria gaineko zubi zaharra bota eta berria egin zuten, ubidea zabaltzeko; argiagoko da orain, jada ez du uholtzak gainezka egiten, ur uher desbridatuak hildako behien karreiu. Hipodromo ondoan zirkua jartzen zuten antzina, marra zuzenez margotutako aparkaleku txukun asfaltaturik bertan ez zegoen garaian: *roulier*-ek abandonatutako trailer gurdi hautsezatuen aukerako garelakua egunez, junkientzat eta maitaleentzat paraje ilun aproposa, gauez. Batzuetan biak bat izaten ziren, junkie eta maitale, batera. Zirria eta xiringa elkarren eskutik. Soropil zabar zabala inguratzen zuten orduan zuhaitzek, lur adabakiz zakartua, sarritan lokazten zena. Gogoan dut, zirkua etorri berri, elefanteak zuhaitzari katigatuta ikusi izana Dana Ona erretegiaren parean, burdinazko katebegi lodi bezain prekario batzuk tarteko. Baita errinozero bat ere, kaiola estuan sartuta, ikastolatik etxera gindoazen umeon pozgarri eta eskuragarri: Afrikara espediziorik egin barik, horra hor, inork kargu hartu gabe jostari uki genezakeen errinozeroaren azal latz gogorra, geure eskuez ukitu ere. Gutariko bihurrienak –Buenos Airesko adiskide Mikelek– konpasaren orratza



Goiko argazkian, Zubietako entrenamendu-zelaia gaur egun. Orain Realaren "dependentsiak" direnek asko eboluzionatu dute taldearen garai loriatsuenetik; orduan, "kanpofubol" hutsa besterik ez ziren.

sartu zion animalia koitaduari. Ez zuen zirkinik ere egin. Drogatuta zegoen akaso, karioletan ikusten genituen lehoi famelikoak bezain. Oraindik ez ginen European. Europako normatibak indarrean sartu aurretiko garaia zen. Gaur egun nekeza egiten zait zirku iritsi berrian sukalderraino sartzeko aukera hori irudikatze hutsa. Eta, hala ere, ez al zen hura paradisua haurrentzat? Gaur ez da zelairik eta ezta lokatzik ere. Parking marratu eta ordenatua baizik.

Zaldiak eta futbola

Hipodromoaren ertzari jarraiki, Realaren Zubietako entrenamenduetako zelaiaren ondoan geneukan ikastola. Zelaia askoz ere soila goa zen orduan: hasteko eta behin, bat eta bakarra zen, eta ez orain dagoen zelai multzo andana, iluminatu bezain antolatua. Realaren "dependentsiak" omen. "Kanpofubola" zen orduan. Argi-foko bakarra zuen, masta luze baten puntan, oso oker oroitzen ez badut. "Kanpofubol" hark zementuzko pirata-ontzia zirudien, sare eta guzti. Kontua da, aise ikusten genituela jolas-garaietan Landaberri ikastolako muinotik Realaren entrenamenduak. Harrigarria, zenbat



gauza ikasi genituen ikastola horretan: zaldiak ferratzeaz, futbolarien trostaz. Elurra egiten zuenean hipodromoko atea zabaldu eta oinez zeharkatzen genuen *pelouse* zuritua, eta gero footing saioan tre-

Hipodromotik eskuinera kilometro eskas egin eta Yoko Garbi frontoian aritzen ginen, artasoroak edo elizako teilatu-gargantuak azken tenis pilota irentsi arte

batzen ziren Realeko jokalariekin elur-bolak tiratzera jostatu: Zamora, Arconada, Bakero, Uralde, Lopez Ufarte, Periko Alonso... Urrezko aroa zen hura. Hipodromoko errepidetik bueltan etxera oinez itzultzen ginenez gero, zen-

baitetan autostop egin eta entrenamendutik etxera zihoazen jokalariek geratu eta zubiraino hurbiltzen gintuzten. Nola ez bilakatu betirako realzale, zure idoloak autoan eraman zaituenean? Garai hartakoan artean, Volkswagen Golf zuria zen glamourraren erpina, eta deigarriena Loinazen Renault destartaltua, barrualdea panpinatxo saltariz betea zuena. Jasotzen ote dituzte egun ere Realeko jokalariek autostopista goiztiarrak etxera bidean? Ezezkoan nago. Pederasta goiztiartzat hartuak izateko arriskua lukete, hasteko eta behin.

"Yoko garbia" zerrategitik gertu

Esan dugu lehen, herri itsusia dela Lasarte, otsailaren 29 euritsua, udalherri intermitentea, fantasma. Gune berde zentrokideetara, hipodromora zein Buenos Airesera ihesa sustatzen duena. Horitara hartu beharrean, ordea —bestela ere nahikoa

jorratzen genuen ingurune hori aste egunetan ikastolara bidean eta ikas-tolatik bueltan-, Zubieta herria har genezake ihes-puntu –ez nahastu Zubietako Realaren zelaia eta Zubieta herria–: hura zen txirrindularion jomuga. Hipodromotik eskuinera kilometro eskas egin eta Yoko Garbi frontoian aritzen ginen, pareta bakarraren kontra amorrua hustuz, artasoroak edo elizako teilatu-gargantuak gure azken tenis pilotaren irensten zuen arte. Orain, artasoroaren orde? Aparkaleku gehiago. Zahartzea horrelako zerbait izango da, ziurrenik: parking bihurtzen dizute haurtzaroa.

Zubietan behera, zerrategian egur meta erraldoia izaten zen askotan: soberako egurrak, itxura kapritxosoa zutenak, Eguberrietako Jaio-tza jartzeko ezin egokiagoak. Eta egur pilari sua eransten ziotenetan... neguko txangoa gurasoekin: zilar-paperetan bildutako patata gordinak erretzen genituen bertan. Hausberoa zuloa egin eta txingarretan erretako patata haiek bezain onik ez dut egundo dastatu.

Asko aldatu da Zubieta, esan beharrik ez dago. Gazteek ez dute jada akorduan izango elizaren atzealdean pilatutako estatua mordoa: marmolezko estatua bururik gabeak, ferietako errekor-tableak baino hobeak zirenak zeure burua bertan jarri eta Napoleon zinela sinesteko. Zaldiekin hasi eta estatua marmolezkoekin buka, nobela guztiak abiatzen dira haurtzaroan.

Zubieta atzean laga eta Alkorta Enearaino jarraitzen genuen geure bizikleta-etapa, aurrez Tourrekoa bailitzan folio batean soslaia egina



LUIS ARNAIZ

Zubietako elizaren atzealdean garai batean zeuden bururik gabeko estatuak.

geneukana, lapitzez eta gutxi gora-behera, topografo bihurturik. Handik aurrera, San Estebanera igotzea geneukan edo Usurbil erdigunera inguratzea, bestela. Eta Usurbiletik gora, malda pikoa (Hors Catégorie!), sagar batzuk bidean hartu eta Igararaino jaisteko moduan. Donostiako periferia oin puntekin zapalduko genuen lehen aldiz, hondartzatik urrun: gaur egun Elkar argitaletxea eta Postetxearen biltegia dauden lekua, hain zuzen ere, orduan “Gurelesa Aldapa” deitzen genion hartan behera, hantxe txatarategia eta esne fabrika besterik ez baitziren guretzat ezagun.

Errumaniarrak gara behelaino artean?

Film errumaniarrak ikusten ditudanero, duela 25 urteko Lasarte datorkit akordura. Argi gutxiago

kalean, salgai gutxiago dendetan. Zaldi-karreretan izan gara aspaldiko partez: lehen aldiz, ordainduta. Ez da gauza bera. Garai hartan igandetako lasterketetara doan sartzen uzten ziguten. Zaldiaren ize-naren arabera izaten zen geure apustua. Ez da harrizkekoa filosofo eta poetek zaldi lasterketak gustuko izatea, izen liluragarriak izan ohi dituzte-eta: *Pantera Rosa* izeneko bat dut gogoan. “Gure zaldiak” irabazten zuenean, pozarren ospatzen genuen, elkar besarkatuz. Inguruko helduek harrituta begiratzen ziguten: “Ume trasteok dirua irabazi ote ditek ba?”, pentsatzen zuten, gu apustuen esku-orriak alegera astintzen ikusita. Bai zera. Garaipen birtuala zen gurea.

Ez genuen dirurik jokatzeko, baina jokatu-baino gehiago pozten ginen. ■



Zientziaren kutxa Guneko simulagailu berrietan, dibertsioa ziurtatuta duzu!

- 4 plazako bi plataforma.
- 9 pelikula ezberdin eta joystick-arekin gidatzeko aukera.

Donostia - www.kutxaespacio.es - 943 012 478

gizarte kutxa
ZIENTZIAREN KUTXA GUNEA
KUTXA ESPACIO DE LA CIENCIA
Zugandik Zugana

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

IG Nobel Sariak eman dituzte

URRIAREN HASIERAN jakin genuen zeintzuk ziren Nobel Sari ospetsuen aurtengo irabazleak, eta horiekin batera IG Nobel Sariak ere ezagutu ditugu. Lehenek oihartzun handia dute jendartearen; bigarrenak ez, baina irria sorrazten digute. Aurten, honela banatu dira absurdokeriaren omenezko sariak.

Fisiologian, *Geochelone carbonaria* dortoka-espeziearen aharrausia ez dela kutsagarria frogatzen duen ikerketa saritu da.

Kimikan, larrialdi bat izatekotan gela batean wasabi izeneko mostaza berde japoniar ospetsuaren zein kantitate barreiatu behar den aztertu duena. Psikologian, berriz, egunero zergatik hasperen egiten dugun jakin nahia saritu da.

Medikuntzan, pixagura handia dugunean erabakiak hartzeko ahalmenari buruzko aztereta, eta biologian, labezomorroak marka australiar jakin bateko garagardo botilekin ugaltzeko duten joerari buruzkoa saritu dituzte.

Fisikan, disko jaurtitzaleek zorabiatzako joera izatearen eta mailu-jaurtitzaleek, aldiz, ez izatearen zergatiaren bilaketarentzat izan da saria; kontuan hartu bi kasuetan biraketa-mugimendua dagoela.

Azkenik, Bakearen saria Vilnius-eko (Lituania) Udalari eman diote, luxuzko ibilgailuak legez kanpo aparkatzearen arazoa goiko argazkian ikus dezakezuen moduan konpontzeagatik.




WS.BLANGSPOT.COM



Umoreari buruzko azterketa Twitter bidez

MILIOIKA ERABILTZAILA dituen mezularitza-zerbitzu ezaguna baliatu dute Ithaka-ko (AEB) Unibertsitateko ikerlariak, munduko hainbat lekutako jendearen umorea neurtzeko. Hain zuzen, 2,4 milioi lagun 509 milioi mezu aztertu dituzte. Ondorio nagusia izan da pertsona gehienek, jatorria

edozein izanik, umore-joera antzekoak dituztela. Behatu dute, adibidez, asteburuetan eta eguneko lehen orduetan umore hobe izaten dela, eta okerrera egiten duela egunak aurrera egin ahala. Asteburuetan luzeago irautean du umore onak, ikerketarik egin gabe ere erraz asma zitekeenez.



HEALTHYLIFECARENEWS.COM



Eboluzio-aldaketa iraunkorrek poliki gertatzen dira

Espezie multzo handi bat aztertu ondoren, aldaketa ebolutibo batek iraun ahal izateko milioi bat urte inguru behar direla adierazi du Oregoneko Unibertsitateko (AEB) Josef Uyeda zoologoak zuzendutako lantaldeak

<http://ttiki.com/31571> (Gaztelaniaz)

Uraren portaera bitxi baten zergatia argitu dute entropiaren bitartez

Unibertsoaren eta haren barruko elementu guztien desordenarako joeraren neurriari esaten zaio entropia. Orain jakin da ura oso entropikoa dela, eta horri esker grafitozko nano-tutuetan isurtzeko gai dela.

<http://ttiki.com/31572> (Gaztelaniaz)

Hackerrak hackerren artean

Iragan abuztuan, hackerrek euren batzar orokorra –Def Con izeneko– egiten ari zirela, norbaitek hainbat parte-hartzailearen telefono eraman-garriak hackeatu zituen. Beste era batera esanda: norbaitek 4G sare mugikor baten segurtasuna haustea lortu zuen lehenbiziko aldiz.

<http://ttiki.com/31573> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Apeta eta kasketa

EZ GARA, NOLANAHI ERE, garai batean bezala idi-bihotzekin (*Tulipa sp.*) erotzen. Ezta gutxiagorik ere!

Urte sasoi honetan aldatzen diren aietan edo erraboilek idi-bihotzak emango dituzte hemendik bost bat hilabetera: udaberriaren atarian, zamarrak eta zirak gogaikarri direnean, egun-argiaren luza-zabalteza nabaria denean, gorputzaren barrunbeetako borborearen oldeak irribarrea eta burua arintzen dizkigun aroan. Idi-bihotza bihotzeko izatea ez da harritzekoa. Tenore horretan tamaina horretako kolore festa izatea luxua da. Baita gaur egun ere; baita ia edozer gauza eskuera izan dezakegulako txepelean bizi garenean ere. Luxua. Liluraldia izango dena orain landatzen ari gara.

Goaztean orain, laurehun urte atzera. Flandrian, ezagutu gabeko kolore nahasturak dituzten idi-bihotz itxurako lore izugarri handiak eman zaleak diren landareak ekarri omen zituzten estraperloan Konstantinoplatik. Urte gutxiren buruan zoramena piztu zen eta lore haiek ez zituen ez zen ez jauntxo ez andertxo. Orduan, garaiko margolari sonatuenak beren erretratua pinta zezan joaten ziren hara gure armadoreak, dirua jario. Handikeria han eta hemen.

Barra-barrako dirutzak itsututa, idi-bihotz berrienak, deigarrienak, bakanenak, urrea baino estimu handiagoa zuen. Ur-aparretan bizi zirenek bitsa horietara eraman zuten idi-bihotzaren balorea. Eta eromena iritsi zen. Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoa gauzek (etxeek, diruek, zorrek...) balio dutena



Landatu gabeko idi-bihotz erraboilak. XVII. mendean urre balioa zuten Flandrian.

baino askoz gehiago balioztatzen datorren eran, XVII. mendean gauza bera gertatu zen idi-bihotzekin. Lore haiek eromena sortu zuten eta bera ematen zuten erraboilak ekoitzi aurretik salduta zituzten. Etorkizuneko balorea zirelakoan dirutza ordaintzen zuten trukean. “Tulipmania”-ri nederlandaraz *Tulpenwoede*, idi-bihotz mania deitu zitzaion. Lore ezezaguna gutiziatutako luxu bihurtua zen. Lore bakarria emango zuen erraboil bat eskuratzeko dirutza asarreak, ikaragarriak ordaintzen ziren enkanteetan. Apeta eta kasketa. Haarlemgo P. Cos muintegiko 1637ko katalogoaren arabera, “Viseroij” motako erraboil bat artisau iaio batek hogei urtean irabazten zuen diruarekin ezin erosi zen, adibidez.



JAKOBA ERREKONDO



Mahatsa ere hemen da

Aurten, beste fruitu guztiak bezala mahatsa ere azkar etorri da, besteetan baino lehenago. Hona txakolindegiko bateko mahastia. Hemen mahatsak duen arazo handiena hezetasuna da: gaitzak sustatzen ditu, alea alferrik galtzeraino. Hona irtenbidea: fruitua lurretik urrutiratu, altxa. Eguzkia lurreraino sartuko da, eta berotu eta lehertu egingo du. Orain, heltzeko sasoi aurre honetan beheko aldeko hostoak kendu egin dizkiote, eguzkiak mahats mordoak ere berotu eta gozatu ditzan.



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Mundu Berriko gotzainaren gehiegikeria zaharrak

DURANGO, 1537. “Orayn bada ene arrebea deunc-zua alaan yçango çara paradisuan alcarr dacuscula”. Halaxe zioen Frai Juan Zumarraga (1468-1548) Mexikoko lehen gotzainak sendiari handik bidalita-ko gutunaren pasarte batek.

Euskal Herrian sorginkeria jazartzen luzaroan aritu ondoren, Abrojoko (Espainia) frai-de etxeko zaindari izendatu zuten. 1527an Karlos I.a erregeak Aste Santua komentu horretan ematea erabaki zuen, eta fraide durangarra ezagutu zuenean, Espainia Berrian zituen arazo larriak arintzeko pertsona egokia izango zela erabaki zuen. 1528an Espainia Berriko lehen gotzain izendatu zuen, eta, bere amona Elisabet I.a Katolikoaren testamentua gogoan, Indiarren Babesle titulua ere eman zion.

Mexikoko lehen ospitalea sortu zuen, inprenta Amerikarra eramaten lehena izan zen, bi eskola sortu zituen eta unibertsitatea sortzeko kudeaketak abiatu zituen. Amerikako lehen liburutegia ere bere aginduz zabaldu zuten Mexiko Hiriko San Francisco komentuan. Zumarragak berak lau doktrina liburu idatzi zituen gazteleraz, eta prosazko euskarazko testurik zaharrenetakoa, arestian aipatutako eskutitza, hari zor diogu. Halaber, tradizio katolikoaren arabera, hari zor diogu, neurri batean, Guadalupe-

ko Amari Mexikon dioten debozioa, bera izan omen baitzen ama birjinaren agerketen lekuko eta berme nagusia (Fraide Juan berak bere idatzietan halakorik aipatu ez arren).

Zumarragaren merituen zerrenda ia hagiografiko hori kontuan hartuta, ez da harritzekoa Paulo III.a Aita Santuak durangarra mailaz igotzea: 1547an, Mexikoko lehen artzapezpiku izendatu zuen.

Baina Indiarren Babesle gisa zegokion lanean ez zuen horrenbeste merezimendurik bildu. Amerikako lehen liburutegia sortu zuenak, ohitura eta erlijio indigenei buruzko milaka testu erretzeko agindua eman zuen. Indigenen babesle ofizialak hainbat indiar esklabo hartu zituen bere zerbitzura. 1536 eta 1543 artean inkisidore apostoliko kargua bere eskuetan izan zuen, eta urte horietan 183 auzi zabaldu zituen auzipetuei “sinistun” ez izatea leporatuta. Gehienak beren sinesmenei eusten zieten indiarrek ziren.

Frai Juan Zumarragaren eginbeharretakobat indiarren aurkako gehiegikeriak salatzea zen, baina, azkenean, bera izan zen babestu behar zituen horien aurkako abusuengatik salaketak jaso zituen. 34, hain zuzen.



Arrastoak

Coco Chanel: espioi nazia

HAL VAUGHAN kazetari estatubatuarra orain arte argitaratu gabeko dokumentuak bildu ditu *Sleeping with the Enemy: Coco Chanel, Nazi Agent* liburuan, Chanelek Adolf Hitlerren erregimenarekin izan zuen harremana egiaztatzen dutenak.

Westminster omen zuen goitizen sekretua eta, besteak beste, Madrilen eta Berlinen burutu zituen misioak, nazien inteligentzia zerbitzuaren aginduetara, eta garai hartan Chanele maitalea zen Hans Gunter von Dinklage ofizialarekin batera.



Uxue Barkos

«Geroa Bairen helburuak NaBairen berberak dira»

Iruñea, 1964. Kazetari izana da. NaBaiko diputatua Espainiako Gorteetan azken bi legealdietan. NaBaiko zinegotzia Iruñeko Udalean egun. Alta, NaBai ez da azaroaren 20ko hauteskunde orokorretan izanen. Geroa Bai koalizio berriaren zerrendaburua da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



IRUÑEKO GAZTELU plazan gaude, NaBaiko egoitzan. NaBai ez da datozen hauteskundeetan aurkeztuko. Egoera berriak ez du Uxue Barkos kikildu, ezta pairatzen duen eritasunak ere: “Oso ongi nago. Uneon, tratamendua bukatu berria, nekatuago. Erradioterapia gogorra da. Nire lehentasunak familia, lagu-

nak eta lana izan dira, baina askotan lanak hartu dit aurrea. Senide eta lagunei denbora gehixeago eskaini behar diedala ikasi dut”.

Elkarriketa honen ondoren Iruñeko Udaletxera joanen zara NaBaiko kide bezala. Zer-nolako giroa bizi duzue egoera berrian?

Azken urte pare honetan egoera ez da batere erraza izan, une gogorrak izan dira politikoki —eta pertsonalki ere— bai niretzat bai guztiontzat. Izan ere, azken zortzi urteotan lana ongi egin dugu, baita NaBai proiektua ongi kudeatu ere. Maiatzean, foru eta udal hauteskundeetan izan zen lehen haustura, orain bigarrena.

Batzuek bestelako erabaki politikoak hartu dituzte, legítimoak. Herenegun Foru Parlamentuko edo udal taldeko kide batzuk Amaiur koalizioaren aurkezpenean zeuden. Beraz, lehenengo momentu hauetan gauzak nahasita daude. Normala da hori. Amaiur nahiz Geroa Bai hauteskundeetarako koalizioak dira eta horrela hartu behar dira. Artean, NaBairen proiektua aurrera eramateko gauza izan behar dugu, gure konpromisoa da gure ahaleginen ardatza.

Bixente Serrano izkok berriki honela idatzi du ARGIAN: "Itxuroso jaio zen. Denek batera hilarazi eta berez hil zen" erran beharko? NaBaiz ari zen. Geroa Bai koalizioa sortu duzue orain.

NaBai ez dago hilda, agian askok nahi izan dute hil politikarako. NaBairen helburuek bizirik jarraitzen dute, horiek Geroa Bairen asmoetan daude, hori da honen izateko arrazoia. Orain zortzi urte aurrera bultzatu gintuen asmoa, iragan maiatzean jarri genuen mahai gainean, eta jarraitzen du izaten, ez dago hilik, asmo bera da une honetan ere. Askoren ustez, siglak bestelakoak izan arren, halako proiektu batek badituela lekua eta zeregina Nafarroan, gure asmoa hori gauzatzeko segitea da. Asmoak berak dira. Nik espero dut denok saiatuko garela lanak giro onean eramaten, gauzak portu onera iritsi daitezen.

Uxue Barkos independentea, Aralarren nahiz EAren desiratua aldian-aldian. Orain, aldiz...

Haiei alde bat egin dut askotan, gehienetan. Nik koherentziaz jokatu dudala uste dut. Noski, batzuetan gaizki egiten duzu bestetan ongi, baina saiatu naiz helarazitako mezu politikoei jarraipena ematen. Aurreko hauteskundeetan proiektu bat defendatu dugu denok, bada, eta nik proiektu hori defendatzen jarraitu nahi dut.

EAJ-EAren kultura politikoetatik datorren NaBaiko kidea omen zara. Batzuek independente izate hori zalantzan jarri dute orain. Egiguzu zure buruaren definizio ideologikoa.

Bai, hori entzun dut askotan. Familia EAkoa dut, tira, aita EAko kidea

"NaBai ez dago hilda, agian askok nahi izan dute hil politikarako. NaBairen beharrek bizirik jarraitzen dute, horiek Geroa Bairen asmoetan daude, hori da honen izateko arrazoia".

da. Beste senideren bat ere kide izan da, gero ez. Eta? Eta horrek ez du kentzen EAJ defendatzen dituen sozialdemokrazia eta abertzaletasunaren esparruarekin bat egitea. Aukera hori Aralarrek ere defendatu du. Halaber, EAJ ere —nahiz eta alderdi demokrata-kristaua izan jatorriz— kudeaketa sozialdemokrata lantzen ari da egun. Ni esparru horretan kokatzen naiz modu independentean.

Espainiako Kongresuan zortzi urte eman duzu diputatu lanetan. Egiguzu balantze bat, pertsonala hasteko.

Esperientzia interesgarria eta gogorra izan da aldi berean, pasio handikoa. Lan berezia da nafar abertzaleon ahotsa Madrilera eramatea, erronka zoragarria, politikoki asko eman dit. Batzuek diotenez —Euskal Herritik begiraturik noski—: "Gure politikariak Madrilen epeltzen dira". Nik Euskal Herrian paseatuko nuke goxo-goxo eta lasai-lasai, politikoki esan nahi dut, eta hori diotenak han jarriko nituzke gure helburu politikoak defendatzen.

Zein izan da NaBairen ekarpena bi legealdietan?

Bat, pedagogikoa: Madrilen Nafarroako politika kolorebakarrean ageri zen. UPNk eta PSNk erabilitako mezua garaile zen beti, hori ezabatzea lan ederra izan da. Bi: aniztasun politikoaren mezua hara eramanez izana. Ez da gutxi. Halaber, praktikan, udal askorentzako diru laguntza garrantzizkoak ekarri ditugu. Sozialki, niretzat ederrena, NaBairen mozio bat aurrera atera



izana politika osoko batzarrean: etxeko zerbitzuan lan egiten duten eta dependentzia duten pertsonak gizarte-zerbitzuan sartu izana. Kongresuak aho batez onartua, orain Toledoko Itunean landu behar dena.

Eta lortu gabeko zerbait?

Bardeetako tiro poligonoaren eremua itxi ez izana. PSOEek atzera egin zuen lotsagarri.

Esperientziaren ondoren, subiranoza-leagoa, ezkertiarra al zara? Edo alderantziz.

Hasteko, ez naiz partidista, duela zortzi urte ez nintzen eta orain are gutxiago. Independentista naiz, baina modu berriak bilatu eta aurkitu behar ditugula uste dut. Independentzia ez dugu Madrilen lortuko, independentzia Euskal Herrian lortuko dugu gehiengo independenteista izango denean. Horretan ez nator bat "Madrilera goaz gure subiranota-

sunatzen defendatzeko eta independentzia lortzeko” esaten dutenarekin. Nola lortuko dugu independentzia Nafarroan daukagun gehiengoaren jokoarekin? Araban dugunarekin. Eta Iparraldean? Gipuzkoako Goierri gehiengoak daukagu eta Bizkaiko Durangoaldean ere bai. Eta? Hala-ber, abertzale naiz, baina Nafarroa subjektu politikoa izateko gaitasuna defendatzen dut tinko eta bizkor. Zentzu horretan aritu naiz azken zortzi urteotan.

NaBai ez da datozen hauteskundeetan egongo...

...hori Aralarrek esana da. Izan ere, NaBairen jabego legalak Aralarrek dauzka eta Aralarreko zuzendari-tzak erabaki du aukera hori ez gauzatzea. Dena dela, zergatia haiei galdetu behar zaie.

Patxi Zabaletak esana da hau ere: “Zabaltzen eta EAJk betoaren doinua hartu eta NaBai bere egin nahi izatea huts bat da”.

Une honetan komeni da nork bere espresio politikoak baretzea eta

ezberdintasunak leuntzea. Azaroaren 21 iritsiko da, eta Nafarroako herritarren beharrek berberak izaten jarraituko dute. Hobe ordura arte espresio horiek bere horretan uztea.

“Kongresuan Geroa Bairen ordezkariak ez badago, ez da nafar abertzaleen ahotsik izango UPNri erantzuteko”

Iñaki Aldekoak honela esan du: ez dago bi espazio ezkerreko abertzale-tasunean. EAJrekin doanak eskuinaren espazioa hartzen du.

Aralarrek orain ematen dituen arrazoiak ez al zuten azken foru eta udal hauteskundeetarako balio? Ulergaitza egiten zait. Iragan maiatzera arte ez al ziren esparru berak? Ezkerra norena zen? Eta eskuina? Non zegoen Aralar? Mesedez. Proiektuak dira ezberdinak. Guk Nafarroak bere bidea subjektu politikoa izateko

nik urratu behar duela diogu, eta eraikuntza nazionala aurrera eramateko —edo ez— Nafarroan jokatu behar dugula. Aralarren erabakian EAEko egoera politikoak eragin handia izan du. Berriz ere, Nafarroa galtzaile edo ordaintzalea da.

Geroa Baik UPNren edota Arabako UA ohiaren eredu hartuko duela diote zenbaitek.

Gu ez gara UA ez UPN. Gu abertzaleak gara, ez espainolistak. NaBai ez da alderdi bat, Geroa Bai ere ez. NaBai alderdi nazionalen koalizio bat da, baita Geroa Bai ere. Nafarren berezitasunei erantzuna emateko koalizioak dira biak. Guk, Nafarroa subjektu politikoa izateaz gainera, abertzale eta abertzale ez direnen arteko espazioa zabaltzea nahi dugu. Horra hauteskunde hauekarako bi proiektu abertzaleen arteko beste diferentzia bat.

Baskisten tokia bilatzea leporatzen dizute, baita abertzaleak eta ezkerrekoak zaretela zalantzan jarri ere.

Niri abertzale *pata negra*... Ezker *pata*

EGIZU HARPIDETZA EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Iparraldean 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELO ARTERA
HERRIAN UPN



"Gure mezu politikoa entzunaraztea ondo da, baina ez hori bakarrik. Bestela esanda: zein dira euskaldunon gaiak? Medizinen salneurria ez da euskal gaia?"

negra, Espainia pata negra... enfin! Mundu honetan mestizaia onartzea beharrezkoa da. Nor da kapaz egun esateko, nor den abertzale eta nor ez? Askotan topiko erraz eta pobreekin egiten dugu lan. Bixente Serrano Izkori ukatuko diote ezkerrekoa eta abertzalea izatea? Zabaltzenen ezkerreko jende asko dago. Noski, EAJ hor dagoenez, erraza da hau eta beste esatea. Uxue Barkos ere San Fermin ikastolan ikasia da, hara.

Zabaltzeneko kide zara. Independenttea. Zabaltzen alderdi politikoa bihurtuko al da?

Ez da hori bere bokazioa eta horrela balitz, nik ez nuke nire burua halako batean ikusiko.

Independenteen rola beti eztabaidagai izan da NaBai koalizioan.

NaBai koalizio bezala sortu zen, alderdi abertzaleen koalizio bezala, baina ez bakarrik, Batzarre ere zegoen, gehiengo ezkertiar bat zegoen. Hori zen gehien gustatu zitzaidana, esparru hura nola eratu zen. Ideologikoki askotan zaila ziren erabaki batzuk hartzea, baina aurrera egin genuen puntu amankomunetan bat eginda. Zentzu horretan esperientzia ederra izan zen, eta da. Hau da, zer da independente izatea? Bada, kaleko jendeak politika egiteko aukera izatea. Hori izan da benetan interesgarria. Geroa

Bairen asmoa hori da eta NaBairena ere bai. NaBai bizirik baita. Zentzu horretan Zabaltzenen asmoa independenteek eta alderdien militanteek eszenatoki bat eratzea da, denok elkarrekin lan egiteko. Hori da gure izateko arrazoia.

Orain bi urte ez zinela berriz diputatu izateko hautagai izango esan zenuen. Orain berriz, aurkeztea erabaki duzu.

Hori esan nuen orduan eta argi eta garbi diot orain: Alararren asmoa NaiBairekin segitzea izan balitz, zerrendaburua beste bat litzateke, eta ni kanpainan ariko nintzateke buru-belarri. Orain baina, gauzak aldatu eta zaildu dira. Horregatik saiaturko naiz nire esperientzia jartzen proiektu berrian, horregatik naiz Geroa Bai-ko zerrendaburua. Politikan kapaz izan behar dugu —gauza bat esan dugun arren— gauzak aldatzen direla onartzeko, eta egoera zailtzen denean ere, horretan lan egiten jarraitzeko.

Zein da Geroa Bairen mezua hauteskundeetan?

Abertzaleen eta ezkertiarren ahotsa Madrilera eramatea, nafar guztien interesak defendatzea, azken zortzi urteetan izan den mezu berbera.

Amaiurrek ere gauza bera edo antzekoa erranen du.

Amaiur eta Geroa Bairen plano politikoak ezberdinak dira. Prakti-

kan ezberdintasun bat dago. Raxoi presidentea dela, edo Rubalcaba dela, UPNko diputatuak talde mistoan izango dira, Nafarroako irudi plano eta ikuspegi bakarra berriro eraikitzen Madril. Madril opinio publikoaren foroa da, interesgarria, bertan egon behar da politika egiteko. Geroa Bairen ordezkariak ez badago, ez da nafar abertzaleen ahotsik izango UPNri erantzuteko. NaBai lortu zuen hori, Geroa Bai horri eutsi nahi dio. Baina ez da diferentzia bakarra. Proiektuak ere ezberdinak dira: besteak beste, parte-hartzerakoan edo proposamenak egiterakoan. Parte hartzeko moduak, NaBai landu duena, segitu behar du izaten. Esaterako, EAJk edo EAK izan duten jarrera, parte-hartze aktiboa. Gure mezu ideologikoa entzunaraztea ondo da, baina ez hori bakarrik. Adibidez: zein dira euskaldunon gaiak? Medizinen salneurria ez al da euskal gaia?

Amaiur ez duzu tankera horretako gaietan sartzeko asmotan ikusten?

Ez dakit. Beraien mezua ez da hori. Beraien mezua da Madrilera goaz herri bat garela aldarrikatzera, etorri nahi ez dugula esatera. Ondo da, herria hemen eratuko dugu, baina Madril herri hau eratzeke gai pila lantzen dira. Adibidea eman dut: medizinen salneurria ez da euskal gaia? Nire ustez bai. Eta Espainiako Gorteetan erabakitzen da.

Azken hauteskundeetan NaBai eta Bildu aurkeztu ziren. Bi aukera izanik, espazio politikoa areago zabaltzen zela, baita boto eta eserleku gehiago eskuratzen zirela erran zen. Orain, ez bata ez bestea ez izatea gerta liteke?

Ez dut uste. Nafarroatik diputatu abertzale bat izango da. Gure errealitate soziologikoak horretarako ematen du. Zatiketa hau ez da egoia, baina badago diputatu bat lortzeko aukera. Noski, nik Geroa Bai-koa izatea espero dut Nafarroarako proiektu egokiena delako.

Esparru abertzalea areago zabalduko al da?

Agian, bai. Baina, bakoitzak bere proiektua defendatuz. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

Jasone Cenoz
Hezkuntza Zientzietan katedraduna EHU_n

«Hizkuntz ereduak ezarri zituztenean, nahiko baikorrak izan ziren»

EAEko hezkuntza sisteman, eleaniztasunari buruzko ikerketen emaitzak eta metodologia aztertu eta *Towards Multilingual Education: Basque Educational Research in International Perspective* lana argitaratu zuen iaz EHUKo Hezkuntza Zientzietako katedratiko Jasone Cenozek (Iruñea, 1960). Aurten, Hizkuntzalaritza Aplikatuak Espainiako Elkartearen (AESLA) ikerketa saria jaso du liburuak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero



“Ikasleek hizkuntza asko hitz egiten dituzte, baina toki askotan, funtsean, eskola oso elebakarra da”.

Lekuan-lekuan, eleaniztasunak maila ezberdinak izango ditu, ala? Hezkuntza sistema bat bera izanda ere.

Eleaniztasuna ezin guztiz berdina izan han eta hemen, eredu bat bera erabilita ere, egoera soziolinguistikoak ezberdinak direlako batetik bestera. Jo dezagun, eredu bat non eskolak euskaraz eman eta gai bat ingelesez irakasten den. Baina, eredu edo dena delako hori, guztiz ezberdin gauzatuko da Iruñean, Lizarran edo Azpeitian. Nahitaez. Eredua eta ordu kopuruak berak izan arren. Paperean jartzea da bat, praktikara eramatea, beste bat. Emaitzak ere ezberdinak izango dira. Hor, gizarteak ere eragin handia du. Egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar da beti. Are gehiago, herri berean ere, ikastetxe bat, eta ondokoa, ezberdinak izango dira zenbaiten iritziz. Nondik begiratzen den! Nazioarteko ikuspegian, ez da ezberdintasunik izango Iruñea, Lizarra edo Azpeitia izan. Indiako egoera eleanitzetik datorrenak esango du: “Hiru hizkuntza darabiltzate irakaskuntzan, hizkuntza-distantziak ere antzekoak dituzte, gizarte egoerak ezberdinak dituzte, bai, baina...”. Alegia, oso antzekoak ikusiko ditu gure herrietako egoerak, zenbait aldagai gora-behera.

Liburuan “Continua for Multilingual Education” ereduak irakurri dizugu, hots, eredu bat garatua duzu leku ezberdinetako eleaniztasunak konparatzeko asmotan...

Bai. Adibide bat baliatuko dut esan nahi dudana azaltzeko. Eman dezagun, Herbehereetan, Frisia. Han frisia, nederlandera eta ingelesa dituzte. Hizkuntza guztiak germanikoak dira, hau da, hurbilak elkarrekiko, nahiz eta badiren alde batzuk, eta alde horiek garrantzizkoak dira, eta emaitzak era batekoak edo besteak izatea ekartzen dute. Horra, esaterako, testuinguru soziolinguistikoa, non familia, lagunartea, eta gizarteak diren jokoan. Beste aldagai bat, garrantzizkoa, hizkuntzak gizarte horretan duen estatusa, hitun kopurua eta abar. Hezkuntzaz ari garenez, horrek, nahitaez, eragin handia du ikastetxeko lanean. Irakasleek berdin jardunagatik ere, gai-



“Hemen, garai batean, era bateko erabakiak hartu ziren hezkuntza sisteman, baina bestelakoak ere har zitezkeen”.

tasun maila bertsua izanagatik ere, testuliburu berdina erabili, hizkuntza-distantziak antzekoak izan... emaitzak ezberdin! Alegia, badira horiek ez beste diren eragingarriak, eta testuinguru soziolinguistikoa da garrantzi handieneko bat.

“New Yorken izan nintzen martxoan, ikastetxe elebidunean. Han, astegunaren arabera jarduten zuten hizkuntza batean edo bestean, gela berean, irakasle berarekin”

EA Eri, edo Euskal Herriari buruz hitz egitea, zertan du baliagarri atzerriko ikertzaileak, edo gaiaren inguruan interesa duenak?

Hara, Indian, esaterako, hainbat hizkuntzarekin lan egiten dute, zeharo dira ezberdinak hizkuntzak, guztiz ezberdin hitz egiten eta idazten dira. Gurean, euskara da berezitasuna, alegia, nahiz eta hizkuntza gutxitua izan, oso indar handia du hezkuntza sisteman. Badakigu gora-behera handiak direla erabileran, erronka handiak ditugula, eta hau

eta hura. Baina ikas-tresna den aldetik, euskararen presentzia oso handia da eskolaren barruan. Eta testuinguru elebidunekoa ez den jendeak nekez ulertzen du ahalegin hori. “Gaztelaniaz baldin badakizue, zertan ari zarete euskararekin?”. Beste gai bat ere bada hor, interesgarriagoa, beharbada. Hemen, garai batean, era bateko erabakiak hartu ziren, baina bestelakoak ere har zitezkeen. Uste dut irakasleek, ikertzaileek eta planifikazio-gileek, denok ere derrigorra dugula beste zenbait lekutan gauzak nola egiten diren ezagutzea. Kontua ez da, besterik gabe, hemengoak kanpoan zabaltzea, kanpokoa ere gurerak ekartzea baizik.

Eta nola egiten dira gauzak kanpoan? Hezkuntza sistemari dagokionean bederen.

Adibidez, gurean, hizkuntzak bata bestetik oso aparte lantzen dira. Euskarazko eskolan, euskara, eta besterik ez. Ingeles eskolan, ingelesa, eta besterik ez. Gurean, liburuak dira, bata euskarazkoa, bestea ingelesezkoa, hirugarrena gaztelaniazkoa edo frantsesezkoa. Beste zenbait lekutan, berriz, liburuak ditu ezkerreko orrialdeak hizkuntza batean, eta eskuinekoak bestean. Eduki halako bat lantzen ari direla,



“Irakasleek berdin jardunagatik ere, gaitasun maila bertsua izanagatik ere, testuliburu berdinak erabili, hizkuntza-distantziak antzekoak izan... emaitzak ezberdin!”

hizkuntza batetik bestera jauzika dabilta ikasle-irakasleak. Liburu elebiduna! Ez diot hori hobe edo okerragoa denik, badela baizik, eta bestek lana nola egiten duen ezagutzea komeni dela. New Yorken izan nintzen martxoan, ikastetxe elebidunean. Han, astegunaren arabera jarduten zuten hizkuntza batean edo bestean, gela berean, irakasle berarekin. Apal gorrian, hizkuntza bateko liburuak; urdinean, bestekoak. Ingelesa eta gaztelania zituzten langai, jakina. Egunaren arabera, hizkuntza batean hitz egiten zuten, edo bestean. Eta berriz diotsut, ez naiz esaten ari zer den hobe, zer txarrago, baina beste herrialdeetan gauzak nola egiten diren jakin behar dugula, bai. Hizkuntzak egunen arabera zehaztu beharrean, asteka ere egin liteke: aste batean hizkuntza batean, bestean bestean. Ingeles irakaskuntzak garbi erakutsi du ikastaro trinkoek emaitza hobeak ematen dituztela bestelako saioek baino... Zein den lortu nahi dugun helburua!

“Garai batean halako erabaki batzuk hartu ziren”, esan duzu. Helburua, betiere, derrigorrezko hezkuntza bukatu orduko EAEko ikasleek bi hizkuntzak jakitea. Helburua ez da aldatu, nola-hala betetzen bada ere, edo betetzen ez bada ere.

“Gure hizkuntza sisteman potentzial handia galdu dela esango nuke. Bi muturren artean ibili gara: ikasleak, edo ikasi du eta EGA agiria ere lortu, edo ez daki ezer”

Helburu hori jarri zenean, hizkuntz ereduak ezarri zituztenean, nahiko baikorrak izan zirela iruditzen zait. Astean hiru-lau orduz kanpoko hizkuntza ikasten jarduteak ez dakar hura benetan ikastea. “Hizkuntza jakitea” ere zer den ikusi behar. Jatorrizko hiztun eta goi-mailako ikasketak dituenaren maila izatea

baldin bada “hizkuntza jakitea”, bada, nekez lortuko dugu. Haraino ez iristeak porrot egin dugula esan nahi baldin badu... Era guztietara, dela ikasi dutenen maila, erdizka ikasi dutenena, ikasi ez dutenena... gure hizkuntza sisteman potentzial handia galdu dela esango nuke. Bi muturren artean ibili gara: ikasleak, edo ikasi du eta EGA agiria ere lortu, edo ez daki ezer. Hor galdu da potentzialtasuna. A erduan, adibidez, euskara astero-astero hainbat orduz, hamaika urtez ikasi, eta, amaieran, emaitza “ezer ez jakitea” dela esango du zenbaitek. Baina, benetan, ez da ezer ez jakitea...

“Ezer ez jakitea”, ez, baina hitz egiteko mailarik ez izatea, bai.

Ordu kopuru hori izanda, interesgarri litzateke besterik asmatzea. Adibidez, eredu horretako euskarazko ordu kopurua ez baldin bada nahikoa legeak agintzen duena betetzeko, zergatik ez gara saiatzen ulermen lantzen, ahozko nahiz idatzizko mezuak –izan litezkeen guztiak–,

ulertzen, nahiz eta produkzioari uko egin, neurri batean? Alegia, Eleaniztasun Hartzailea, *Receptive Multilingualism* delako hori. Orain duguna baino hobe izango luke euskarak. Denek ulertuko balute, euskaraz dakienak beti erabili ahal izango luke euskara, eta euskaraz hitz egiteko gai ez direnen artean ere bai. Hitz egiten ikasten ez badute, ulertu, behintzat. Horrela, gainera, hiztun hartzaile horien asebetetze maila handiagoa izango litzateke. Ulertzen duenak errazago joko du dakien apurra ere erabiltzera... Aukerak bat baino gehiago dira.

Eleaniztasun hartzailea, beraz, aukerabat.

Eskandinavian, esaterako, askotan nork bere hizkuntzaz hitz egiten du (daniera, suediera...), eta elkar ulertzen dute. Nahiz eta euskararen eta gaztelaniaren arteko distantzia handiagoa izan interesgarria izan daiteke gure kasuan ere. Ikertu eta landu egin behar dela uste dut. Ulermena besterik landu nahi ez badugu, metodologia ere aldatu beharko genuke, noski. Baina euskararentzat, eta hiztunarentzat, mesedegarri litzateke. Ikusiak ditut unibertsitatean bertan zenbait jarrera, euskararen ez aldekoak, hitz egiteko gai ez izateak sortu dituenak.

Aldizkari honetan bertan, kanpoko zenbait aditu izanak ditugu. Joaquim Dolz, Ignasi Vila, Juan Carlos Moreno Cabrera... Gurean egin den lanaren handia azpimarratu ohi dute denek. Dena dela, betikoa beti: "Hizkuntza hitz egiten ez bada, ordea..." Arazo handia dugu erabilera, bai. Erabilera ez da jaitsi, baina igo, oso gutxi igo da. Titulu asko bazterretan, baina hitz gutxi. Jende askok errazago erabiltzen du gaztelania, euskara baino, eta horiek ez dute ahalegina egiteko asmorik. Gazteak berriz, modaren arabera bizi dira,

Masterra abian

Eleaniztasuna eta Hezkuntza-Europan Master in Multilingualism and Education eratu berria du Donostiako EHUren Filosofia eta Hezkuntza Fakultateak, eta Jasone Cenoz da buru. Nazioartekoa da, Herbehereetako Groningen-go unibertsitatearekin elkarlanean antolatua. Helburua, adituak prestatzea, hemengo egoera eta kanpoko ere ezagutzeko formazioa eskaintzea, oinarri teorikoak erakustea: "Batetik, adituak prestatu nahi ditugu, ikastaroak, hitzaldiak, ebaluaketak... egiteko gai izango direnak; bestetik, ikertzaileak sortzen lagundu nahi dugu. Nazioartean, Europan, erreferente izan nahi dugu arlo honetan". Bi urteko iraupena izango du, nazioartekoari dagokionez, eta zenbait protokolo sinatuak dituzte HABEekin, ISEI-IVElrekin, Herbehereetako Fryske Akademiarekin, besteak beste. Hezkuntza fakultatean osatua dute eleantiztasunaren eta hezkuntzaren inguruko ikerketa-taldea: Donostia Research Group on Education and Multilingualism (DREAM). Informazio osoa, www.multilingualeducation.eu helbidean.

noiz euskaraz, noiz gaztelaniaz. Hala ere, gazteen kasua ezberdina da, adinari loturik egon daiteke-eta haien jarrera.

"Eskandinavian, askotan nork bere hizkuntzaz hitz egiten du eta elkar ulertzen dute. Nahiz eta euskararen eta gaztelaniaren arteko distantzia handiagoa izan interesgarria izan daiteke gure kasuan ere. Ikertu egin behar litzateke"

Eleaniztasuna hezkuntzan, eta hezkuntza eleantizta... Zertan dira gelan pil-pilean dauden hizkuntzak, etorkinek ekarriak, alegia, irakaskuntza hizkuntza ez diren horiek?

Gai konplexua da. Ikasleek hizkuntza asko hitz egiten dituzte, baina toki askotan, funtsean, eskola oso elebakarra da. Londresen, esaterako, hizkuntza mordoa

daude. Eskolan, periferiakoetan, hogei hizkuntza hitz egiten dituzte gela bereko ikasleek, baina etxean erabiltzen dituzte, eskolan hizkuntza bakarra dutelako: ingelesa. Hemen, hiru edo lau hizkuntza ditugu, besteak etorkinen etxean gordeta daude, salbuespenak salbu, eta portugesa da adibide. Kultur arteko programak egiten direnean, esaterako, arazoa azaleratzen da, horren kontzientzia hartzen du jendeak, sentiberatasuna lantzen da, baina ez da hizkuntza lantzerantz jotzen. Errumaniarrak daudela, hitz batzuk erakutsiko dira, zenbait ohituraren berri emango... baina hizkuntza hori curriculumean sartu gabe.

Sentiberatasuna.

Zenbait lekutan lan bikaina egiten ari dira horretan. Derrigorrez landu behar da sentiberatasuna. Hizkuntza horiek hitz egiten dituzten ikasleek beren hizkuntzak eskolan baloratuak direla ikusi behar dute. Oso garrantzizkoa da. ■



Babeslea: HABE

HABE
Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 eskalategi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduoro
euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net

“Idatzia ahotsa hartzen duenean” jardunaldiak

MINTZOLA ahozko lantegiak antolatu ditu *Idatzia ahotsa hartzen duenean* izenburuko II. jardunaldiak. Azaroaren 2an, 3an eta 4an izango dira Villabonako (Gipuzkoa) egoitzan. Jardunaldien helburua ahozko eta idatzizko jarduna bereiztea da. Hizlari arituko dira, besteak beste, unibertsitate irakasleak, ipuin kontalariak eta bertsolariak. Hainbat hitzaldi soltez gain, hiru mahai-inguru egingo dituzte: lehena, Luis Mari Larringan, Arantza Ozaita, Asier Larrinaga, Oier Guillan, Iñigo Ortega eta Julia Marinek osatutakoa. Bigarrena, Joxerra Garzia, Itsaso Arrieta, Ana Elorza, Uxue

Alberdi eta Iker Zubeldiak osatua. Eta hirugarrena, Leire Diaz de Gereñu, Itziar Elorza, Bea Egizabal eta Joxemari Carrerek osatua.

Ele2tor erreminta bitxia

ERRAMUN TURUTARENAK *Turutene* blogean, hizkuntza batean ezagutzen dugun hitz kopurua gutxi gora-behera kalkulatzeko erreminta pres-tatu du. *Elbuiar* hiztegia hartu eta euskarazko eta gaztelaniazko sarrera guztiak deskargatu ditu. Hizkuntza bakoitzeko 50 hitz proposatzen dizkigu eta ezagutzen ditugun ala ez esan behar dugu. Zenbat euskarazko eta zenbat gaztelaniazko hitz dakizkigun jakin dezakegu horrela.

BAHEA

[Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak](#), egituraren bertan [euskara integratzeko egindako planari buruz](#) Bea Sallaberryk [banetabemen.blogspot.com-en](#) esanak:

“Horrelako proiektuak (euskara txertatzearena lantoki baten funtzionamenduan suposatzen duen guziarekin: lana bera, dokumentuak zentzu zabalean, jendeak... euskalduntzea) bakar batzuk izan dira lehenago iparraldean, isolatuak eta nagusiki eragile pribatuenganik burutuak, sekulan ez eragile publiko batek eramanik, ez eta neurri hortakorik.

(...) Euskalgintzak urteetan galdetu duen ekimena da hau: podere publikoak engaiatzea hizkuntzaren geroari begira eta arabera jokatzeko, beren publiko eta erabil-tzaileen nahiak errespetatuz, euskaraz litekeen zerbitzua proposatuz, bideratuz, garatuz. Sekulako urratsa aitzina. Seinale indartsua da, alta azpimarratzen ez dena. Hutsune eta akatsak izanen litzuke hurbilegitik behatzen bagenu, baina bere horretan sekulako aitzinamendua da euskaldun ororentzat”.

[Benito Lertxundik Noticias taldeko egunkarietan](#) esanak: “Gure kultura, hizkuntza, salbatzeko, politika da bide bakarra. Zer egiten dute estatu independenteek? Beren kultura inposatu. Euskara dirua eta lanpostuekin lotu, eta ikusiko duzu nola salbatuko den. Elebitasunaz zentzurik gabe hitz egiten da askotan. Herri honetan ez dago elebitasunik, ezinezkoa da 24 orduz euskaraz bizitzea, bai ordea gaztelaniaz. Hizkuntza bat derrigorrezkoa da eta bestea auke-razkoa. Hau lasai asko esaten da, eta ez dakit nola ez diren lotsatzen”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Langabezia: Bankuen ardura larria

Joan den astean Espainiako Estatuko iraileko langabezia datuak argitaratu ziren: 95.817 langabetu gehiago, guztira 4.226.774 lagun. Alarma gorria piztu da, langabezia asko hazi baita eta hurrengo hilabeteak ez direla hobeak izango aurreikus daiteke. Hego Euskal Herrian, abuztuan, 182.136 langabetu zeuden, eta irailean 184.524. Araban 22.209 dira; Bizkaian 79.654; Gipuzkoan 40.243; eta Nafarroan 42.618 langabetu. Nafarroan gertatu da gorakada ikusgarriena, hilabete bakarrean 1.211 langabetu gehiago baitaizka. Ohikoa den bezala, zigortuenak emakumeak eta gazteak izan dira.

Langabeziaren hazkuntzaren arrazoiak aztertzeke orduan, batzuek –Espainiako Gobernuak– “autonomietako doikuntzak” aipatu dituzte, eta beste batzuek –Euskal Herriko sindikatuak– hainbat erakundek daukaten doikuntza politikek huts egin izana jarri dute mahai gainean, enpleguaren egoera eta babes soziala okertzen dutelako eta politika horiek kapital handiaren interesak baino ez dituztelako defendatzen. Badaude ordea beste erakunde batzuk, finantzarioak kasu –bankuak eta aurrezki kutxak–, langabezia ardura larria dutenak. Kredituen iturria itxi dutenez, ehunka enpresa txiki itotzen, gelditzen eta hiltzen ari dira, horrek dakarren langabezia hazkuntzarekin. Adituek diote kredituaren iturriak itxia jarraituko duela eta iragarri dute bost urtetan ez dela %1 edo %2 baino gehiago haziko. Santanderrek, adibidez, esan du ez duela bi urtez kreditu gehiago emango Espainiako Estatuan. Hor daude langabeziaren benetako arduradunak. Sindikatuak eta langileek argi izan beharko lukete euren ekintzak eta mobilizazioak bideratzerakoan. Enpresa txiki eta ertain askotako administrazio kontseiluak ez dira, egungo krisian, langabeziaren arduradun; Bankua bai.

Juan Mari Arregi



Normalizazio politikoaren kotoiaren frog

ESPAINIAKO Auzitegi Gorenak Sortu legez kanpo utzi zuenean, aurrerago Auzitegi Konstituzionalak ez zuela erabakia berretsiko zabaldu zen han-hemenka. Tira, halakorik ezin zuela pasara zi, eta Bilduri maiatzaren 22ko ateak zabaltzea uste hori sendotzen zuela. Udal hauteskundeetan ez, baina Espainiako orokorretara akaso baietz. Langa hau gaindituta —urriaren 7an bukatu zen horretarako epea—, hurrengo geltokia EAEko autonomikoetakoa da dagoeneko.

Maiatzean ez bezala, orain inork ez du zalantzan jartzen Amaiur, eta beraz Bildu, hauteskundeetan izango direnik, Cándido Conde-Pumpido Espainiako fiskal nagusia eta beste batzuk kontrakoa irudikatzen saiatu izan badira ere. Baina fase honetan, urriaren 24 arte, bai izango dugu hila bete hauetan normalizazio politikoan emandako urratsen neurgailu esanguratsu bat: egin ahal izango du Amaiurrek bere izen ematearen prozesua beste edozein alderdi edo koalizio bezala? Joko du Fiskaltza Nagusiak bere aurka, hainbatetan iradoki duen gisan? Edo Bildurekin maiatzean ikusi genuen pelikula osoa berrikusiko dugu?

Orain arte Amaiurren inguruko zalaparta txikia ikusita, pentsa liteke ez dela maiatzeko ikuskizuna errepikatuko, ez dugula zerrenda kutsatuen zirkoa berriz ikusiko, nahiz eta orduko lege bera dagoen indarrean. Baina badira kontrakoa pentsatzen dutenak ere, eta ez nolanahiko iritziak gainera. Javier Perez Royo Espainiako konstituzionalista ezagunak maiatzeko prozesu bera iragarri zuen oraingoan ere Bildurekin (Amaiur irakurri liteke bere lekuan) "Zertan ari gara jolasen?" artikuluan: hau da, Fiskaltza Nagusiak helegitea jarriko zuela,



Auzitegi Gorenak legez kanpo utziko zuela Bildu eta ondoren Konstituzionalak bere parte hartzea berretsiko zuela.

EAEko PPko buruzagi Iñaki Oyarzábalek behintzat ez du zalantzarik, Amaiur Espainiako Kongresuan egongo da, joan den astelehenean Deia-n egindako adierazpenetan oinarrituta bederen: "Madrilen etengabeko ikuskizuna eman nahi badute, uste dut akats handia egingo dutela". Jakina, kontuan hartu behar da elkarrizketaren testuingurua ere biziki aldatu dela maiatzetik hona, egunkariak Oyarzábale titulurako hartu dizkion berbek ondo adierazten duten moduan: "Heldu egingo diogu Urkulluren erronkari, Rajoy ausarta izango da bakearen alde". Apurka bederen, badirudi Iñigo Urkullu eta Mariano Rajoy-ren arteko bileren fruituak ere azaleratzen ari direla. Hauteskundeetara gerturatu ahala bakearen diskurtsoa gailentzen ari zaio irabazle eta galtzaileenari, hori ere interesgarria da.

PASAIKO kanpoko kaia ez duela egingo iragarri du Gipuzkoako Diputazioak eta erraustegiak bost urtez itxaron beharko duela ere bai, eta bitartean zaborrei buruzko eztabaida bideratuko duela. Gipuzkoa-

ko Batzar Nagusien aginduari ezezkua eman dio modu horretan Diputazioak, horrek duen arriskuarekin. Diputatu nagusi ohi Markel Olanok berehala erantzun zuen Twitterren: "Dena herriarentzat, baina herria gabe". Ez zuen iragarri, ordea, bere taldeak zentsura mozioa aurkeztuko zuela Martin Garitanoren gobernuaren aurka, jakin badakien arren PP eta PSE prest izango dituela horretarako.

Hainbat proiektu esanguratsuren aurrean, Batzar Nagusien aginduen edo bere izaeraren artean harrapatua dago Bilduren gutxiengo gobernu. Eta badaki, baina oraingoz, eta logikoa den moduan, bere hauteskunde aginduekin aurrera egitea erabaki du, horrek etengabe funanbulismoan ibiltzera behartzen badu ere. Bere esku baino, besteen esku dago bera gobernuan izatea, hemen zein Donostiako Udalean. Baina gaur gaurkoz, maiatzeko emaitzak eskuetik ditu Bilduk eta hauteskunde lehiak ez dio aukerarik ematen EAJri Bildu Gipuzkoako Diputaziotik kanporatzeko, 2013ko autonomikoak arte, gainera, ez dirudi erraza izango duenik. Oraingoz karta hori poltsikoan gorde du Olanok, baina aukerarik badu, laster mahai gaineratuko bide du.

Eta, aurrera begira, beste aukera bat ere bada halako azpiegitura proiektu handietan, herriarekin edo herriarentzat erabaki beharrean, herriak berak erabaki dezala. Diputazioak edo Batzar Nagusiek beharrean, erabaki dezatela gipuzkoarrek erreferendumez. Suitzan, Italian eta Europako iparreko herrialdeetan, besteak beste, kontsulta molde hori eguneroko ogia da.



PELLO ZUBIRIA

Ehunka txanpon txiki herriak biziberritzeko

Urte bete barru Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan lekuko moneta propioa eduki dezakete, Bizi! mugimenduak sustatuta. Munduan horrelako lekuko txanponak ehunka dira gaur egun, globalizazioari aurre eginez bertako ekonomiak, enplegu berriak, herritarren arteko elkarlana eta iraunkortasuna sustatzen dituztenak.

BIZI! MUGIMENDUA, IPARRALDEAN 2009tik ekologiaz eta justizia sozialaz okupatzen den talde gaztea, joan den udaberritik ari da aztertzen lekuko diru berri bat abiaraztea. Gara egunkarian irailean azaldu duten ideia maiatzean Noel Txetx Etxeberri aurkeztu zuen *Enbata* astekaria-ekin banatzen den *Alda* gehigarrian: *Demain une monnaie basque?*

“Bihar euskal moneta bat?” ikusita zenbaitek ulertu lezakeen arren diru abertzale bat aipatzen duela, nazionalismoarekin ez baina justizia sozialarekin eta ekologikoarekin kezkatuta mundu osoan ugaritu diren ehunka sasi-diruen ildotik dator asmo berria. Antolatzaileek aitortu dutenez, Okzitaniako Villeneuve-sur-Lot herrian darabilten *Abeille* (erlea) eta Alemaniako Bavariako Chiemgau eskualdean darabilten *Chiemgauer* (chiemgautarra) dauzkate inspirazio iturri.

Villeneuve-sur-Lot eta inguruetan bizi diren biztanleek aukera dute euroaz gain delako *erlearekin* ere erosketak egiteko 2010eko urtariletik. Prezioetan ez daukate nahasterik: *abeille* 1 = euro 1. Badira 1, 2, 5, 10 eta 20 erleko billeteak. Agir pour le Vivant elkartek agudeatzen du lekuko moneta, bere bulegoetan saltzen ditu erleak.

Ez denetik baina gauza eta zerbitzu asko eros daitezke erlez ordain-

duta: jokoan parte hartzea erabaki duten dendari, artisau, profesional eta elkarteek atarietan iragartzen dute. Beraz, abeillak usatu ditzakezu Villeneuve-sur-Loten ogia eros-teko, ordularia konpontzeko, umearen zaintzaileari pagatzeko, eta abar luze bat.

Erakunde eta profesionalek baldintza plegu zehatza onartu behar izan dute horretarako. Agir pour le Vivantek produktzio eta zerbitzu ekologikoak eta hurbilekoak sustatzen baititu, lan baldintza duinetan ekoiztiak, ahalik eta iraunkorrenak. Sei hilero erleak balioaren %2 galtzen du, horrela lekuko dirua gorde ez baina erabili dadin.

Ipar Euskal Herriko proiektuaren sortzaileek aipatu duten beste eredu Alemaniako Chiemgau eskualdekoa da. Erleak bezala, *chiemgauerrak* ere euroen parekide dira. Baina sei hila-betero balioaren %8 galtzen dute. Diru honekin funtzionatzen duten herritar eta saltzaileek hiru hilabetez behin jasotzen dute billete bakoitzaren %2 balio duen tinbrea, paperari erasteko. Horrela eragotzi nahi dute sos horiek *berdoiltzea*.

2003an sortu zuen chiemgaurrea Christian Gelleri maisuak bere ikasleekin elkarlanean. Helburuok ezarri zizkioten txanpon berriari: enplegu berriak sortzea, kultur jarduerak ugaritzea, iraunkortasuna

www.hunnio.com gunetik hartutako irudian Alemaniako Bavarian Chiemgau eskualdean 2003tik darabiltzaten *chiemgauerrak*, 1, 2 eta 5 euroen baliokideak diren billeteak. Lekuko moneta hauen helburua herritarrek ez gordetzea baina herri barruko salerosketetan erabiltzea denez, urteko paperak usatu behar dira; billete bakoitzak beheko aldean garbi erakusten du hiru hila-betero erantsi beharreko kupoia, diruaren depreziazio edo *herdoitze*ari dagokiona. Irudi txikian New Yorkeko Ithaca herrian darabilten dirua, parekidetasuna ez dolarra-ekin baina lan ordu batekin daukana; irudiko billeteak 8 ordu balio du. Merkataritza alternatiborako tresna dela azpimarratzen du leloak: *dolarrak In God we trust* edo “Jainkogan dugu konfiantza” dioen lekuan honek “Itakan dugu konfidantza” aldarrikatzen du. 1991tik dago martxan AEBetako eredu zaharren hau.

sustatzea, elkar-laguntza sendotzea, lekuko ekonomia indartzea eta espekulazioa eragozte.

2008an diru hori 3.000 herritarrek usatzen zuen, 600 komertzio-tan onartzen zen eta 370.000 chiemgauer zeuden zirkulazioan. Urte hartan hiru milioi fakturatu ziren chiemgauerretan, horiei esker eskualdeko elkarleen artean 33.000 banatu zirelarik diru-laguntzetan.

Hurbiltasuna eta integrazioa

Frantsesez SEL *Système d'Echange Local* eta ingelesez LETS *Local Exchange Trading System* deitzen diren lekuko diruok mundu osoan daude zabalduta. Horretan dabiltzanek diote lehenbizikoa Kanadako British Columbia estatuan Michael Lintonek abiarazi zuela, 1983an. Frantzian lehenbiziko SELa 1994an sortu zuten, guregandik hurbil Ariège departamenduan.

Munduan lekuko diruon paradisutzat Australia aipatzen da, 1995erako 250 sare baino gehiago zeuzkalako. Kanadan asko dira. Ekuadorren 140. Hortik aurrera, Japonia, Holanda, Hego Afrika, Hego Korea, Erresuma Batua, Suitza, Venezuela eta abar luze bat.

Ugaritasun horrek berekin ekarri du aniztasuna ere. Gorago aipatu erleak eta chiemgauerrak euroaren baliokide eta beste asko nor bere



bat abian jarri bezain pronto azaltzen dira arazoak ere. Hasteko, zer egin zergekin: non-nola ordaindu BEZa. Espainian eta oro bat Hego Euskal Herrian ez da arazo handia, hemen diru beltza barra-barra baitabil ohiko sistema ekonomikoan ere. Gauzok zorrotzago kontrolatzen dituzten Frantzian salaketak eta epaketak izan dira, elkarlaguntzan ari ziren batzuk lantegi klandestinoan ari zirelakoan. Parisko Gobernuak gaur ez du BEZik eskatzen baldin eta SELez pagatzen dena tartekako lan bat baldin bada, enplegaturik gabea.

Jardinons la planète blog interesgarriak martxoan plazaratutako *De l'écologie monétaire* artikuluan pausatzten zituen lekuko diru hauen zenbait kontraesan. Bere burua *decroissance* edo herturaren militantetzat daukan egileak ikusten die gaur nagusi den neoliberalismoari joko egiteko arriskua: “Estatuek monetaz duten monopolioa hausten dute, baina gainera sustatzen dituzte harreman sistema batzuk berekin dakartenak lanpostuen malgutasuna, zerbitzu publikoen kostuak pagatzetik aldentzen dira; sozialdemokraziak ekarritako ongizate estatuen eraisten laguntzen dute”.

Alderantzizkoa uste du *Txetx* Etxeberri: “Tokiko diruak balioa duen lurraldean, proiektu komunitate bat sortzen da, idekia eta integratzailea, jendeen neurrikoa, bere oraina eta geroaren aktorea, munduaren beste parteekin eta datozen belaunaldiarekin solidarioa dena”. Laster ikusiko dugu ■



moneta ofizialaren parekide diren moduan, badira beste batzuk denbora banku legez funtzionatzen dutenak, unitatetzat lan ordua harturik. Internetek are gehiago bilakarazi ditu sistemok, kudeaketa asko burutzeko bezala kontrolatzeko ordenadoreak usatzen direlako orain.

Diru “sozialak”, “paraleloak”, “alternatiboak”, “osagarriak” eta horrelako izen gehiagok bataiatu direnokin beren bultzatzaileek erantzun nahi izaten diete sistema finantzario nagusiak burutzen dituen desmasiei. Ez dira antzinako moneta txiki lokaletara edo diru nazionalak itzultzeko ahaleginak.

Patrick Viveret filosofo eta ekonomia sozialean adituak bost fun-

tzio aurkitzen dizkie sos berrioi. Salerosketen izaera aldatzen dute, gizarte barruko harremanak berrantolatuz. Ekonomia berriro lekuan finkatzen laguntzen dute, txanponok ez daukatelako baliorik hurbileko zirkuituetatik kanpo. Txirotasunari aurre egiten laguntzen dute, bestela saldu ezingo liratekeen produktuak edo zerbitzuak zirkulazioan sartuz. Bazterketaren kontrako borrokan balio handia dute, lanposturik gabeko jendeen integrazioa ahalbideratzen dutelako. Eta ingurumena zaintzen laguntzen dute, hurbileko produkzio eta kontsumoa sustatzeaz gain produktuak behin eta berriro usatzea baimentzen dutelako.

Abantailak asko izanik, diru berri-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Joxe Iriarte, *Bikila*

Egur emaile profesionalak

Ertzainek erakutsitako profesionaltasuna eta proportzionaltasuna zoriondu nahi dut”. Rodolfo Aresen hitz hauek oso garbi adierazten dute gatazka sozialetan zein aldean lerrokatzen den botere politikoa. Beste hitzekin esanda, zeinentzat lan egiten duen. Hala ere, ez dira lotsatzen “herri osoaren” mesederako jarduten dutela esanda. Dena den, aztertu dezagun hitz horietan dagoena.

Errekalde auzoa inguratu eta Kukutza militarki setiatu ondoren, eraikinean kosta ahala kosta sartzeko helburu zutenek, logikoa da neurritz jokatu zutela aldarrikatzea. Nolako helburua halako neurria. Zertarako bestela, tanke-ta eta tresneria guztiez oldartu? Aldiz, Kukutza barruan zein kanpoan ahal zuten moduan erantzun zutenak, Aresentzat eta Azkunarentzat, neurritz kanpo aritu ziren. Hots, erasotua erasotzaile bihurtu nahi izan dute.

NOLAKO PROFESIOA HALAKO JARDUNA.

Badira pertsonen gaixotasunak sendatzea eta bizitza salbatzea helburu duten profesioak –lanbideak–, nahiz eta haien artean hiltzaileak ere izan. Gizakiekin esperimintatu zuten sendagile naziak, esate baterako. Militarrek, aldiz (Piris jeneralaren definizioa ontzat emanik) zenbat eta etsai gehiago akabatzea hobe, hori dute helburu, eta horretarako prestatzen dira modu profesionalen, nahiz eta larrialdi garaietan jendea salbatzeko ere aritzen diren. Profesio guztietan suertatzen da ordezkotzako jarduerak. Polizia, manifestariak jipoitzeaz gain trafikoa zaintzeaz ere arduratzen da. Kontua da zein den profesio bakoitzaren zeregin nagusia. Niretzako garbi dago: armadarena eta polizia *statu quo* zaintzea! Jakina, nolako estatua halako polizia! Francoren garaiko polizia eta gaurkoa ez da berdina.

Egunotan Howard Zinn-ek idatzirik *Amerikako Estatu Batuen beste historia* irakurtzeko parada izan dut. Argigarria, gizakiaren eskubideak eta norbanakoen askatasunaren aldarri ozenaren konstituzio aitzindaria (gobernari txarren aurkako matxinadaren zilegitasuna onartzen duena gainera) nola historian zehar



DANI BLANCO

manipulatua izan den oligarkiaren jabego pribatuaren alde. Nola independentziaren alde borrokatzeko sortutako armada, eta gizartearen zaintzeko milizia, guardia nazionala eta polizia, zein garaiz jarri zuten (jatorrizko amerikarrak sarraskitzeaz gain) beltzen pobreen eta langileen errebolta sarraskitzen.

MOZORROAK. Diktaduretan ez bezala, zuzenbideko (omen) estatuetan, polizien aurpegiak moztutako estaltzeaz gain, beren zeregin moztutako saiaketen dira. Alegia, leloa bihurtu da polizia hiritarrak “gaizkileengandik” (jakina, gaizkile arriskutsuenak, goi-mailako jendilajeak, ia ukiezina dira) babesteko dela. Gurean, “bertakoak” ildo horretatik jo du

Ertzaintza izena hartu duenean. “Besteak” “nazionala” edo “zibila” deituak nolabait (alegia, militarra ez omen dena nahiz eta militarki antolatua izan), moztutakoak bai baina ez dute moztutako beharrik. Egia esanda, ez dira berdinak, baina, zoritxarrez, geroz eta antzekoagoak. Duela bi urte Urbinan jaso genuen egurra oraindik bizirik dut gogoan!


Kukutzakoak gaizkileetat hartuak izan dira (ez badute hain garbi esan) beraia ez zen jabegoa ilegalki okupatu zutelako. Jabego pribatua, horra hor gako! Sozialismo erreala desagertu zenetik –berean jabego publikoa nagusia eta babestua da– estatuek esku gutxitan pilotzen den jabego pribatua zaintzea dute helburu nagusia. Izan ere, ez gaitezen engaina, jabego pribatu guztiak ez daude berdin babestuak. Instituzioak ez dira hain fin ibiltzen jabego txikiak desjabetu behar dituztenean. AHTren kasuan lurren nagusien gainetik pasa dira hondeamakinak Ertzaintzak babesturik!

Kukutza auzian inork ez du ukatu nagusiak bere eskubidea zuela, baina gutxiak argitu dute jabego horren gainbalioa *pelotazo*aren traza zuen birkalifikazio baten bidez lortu zela. Eta Udalak, nahi izanez gero, bazuen egoera aldatzeko eskumenik, baita dirurik ere. Injustizia baten gainean beste bat pilatu da. Eta Ertzaintza, hori dena estaltzeko erabilia izan da. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

www.nekatur.net/ondarre

1



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Tolosa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

4



Artez euskara zerbitzua

2011-2012
5 lizeo agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

5

AZKEN IRABAZLEAK (2292. Argia)

URBANO jatetxea

- Asis Trebiño Galarraga (Donostia)

IBERNALO landetxea

- Belen Altuna (Zarautz)

ARTIUM

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Jone Marregi Etxabe (Donostia)
- Fray Juan de Zumarraga Institutua (Durango)
- Jesus Gonzalez Esteban (Oñartzun)

KHERAU munduan ortozik CDA

- Jokin Zubeldia Mujika (Hernani)
- Saioa Arando Lasagabaster (Aretxabaleta)
- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

IRAKASLE AGENDA 2011-2012

- Arrasateko Udal Euskaltegia (Arrasate)
- Itsaso Garmendia (Donostia)
- Ainhoa Etxabe Chamorro

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

